



ARGIA



LAURA PEREZ

NAFARROAKO PODEMOSEKO IDAZKARI NAGUSI OHIA

**“PSN eta Geroa Bairekin akordioa
bultzatu nahi dute Madrildik”**

**ZAINTZA KRISIA:
EMAKUME POBREENAK
NESKAME**

**OIER GUILLANEKIN
ELKARRIZKETA**

**IBIZAKO SUGANDILA
GAZTELUGATXEN**



Datorren astean



PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Albisteak
- 7 Fauna publikoa
- 10 Europarrok nola afrikartuko garen datozen hamarkadetan

IRITZIAK

- 17 Asier Blas Mendoza
- 18 Kimetz Arana
- 19 Gorka Moreno Márquez
Edu Zalaieta Anta
- 20 Irati Elorrieta



*Zaintza gizarte osoaren krisia da:
lehen emazteen bizkar uzten zuten gizonek, orain pobreenak dira neskame.*

DANI BLANCO

- 36 BIZI BARATZEA
- 38 AZOKA
- 39 KOMUNITATEA
- 40 DENBORAREN MAKINA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGİ-KONTRA:
OTHMAN ALFREDO
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: JOSU SANTESTEBAN

SAKONEAN

- 12 | Raquel Padilla: "Gasbidea egitearen truke 400 peso eskaini diote familia bakoitzari, 18 euro" / Reyes Ilintxeta
- 22 | Etxeko langileak: XXI. mendeko esklabotza / Malen Aldalur Azpillaga
- 27 | Pitiusetako sugandila: Ibizan uso, euskal kostaldean otso / Iñaki Sanz-Azkue
- 30 | Laura Perez: "78ko Erregimenaren beste makulu bat izaten amai dezake Podemosek" / Xabier Letona
- 34 | Aldibereko itzulpena: *Belarriprestak* agerian gelditu dira Bergaran / Igor Agirre
- 41 | Juana Bixenta, ez etsi! / Itxaro Borda
- 44 | Oier Guillan: "Arrakasta jendearekin komunikazioa lortzea da, horretarako egiten dugu lan" / Mikel Asurmendi

ALDIZKARI HAU IRAKURRI OSTEAN, EMAN NORBAITI EDO UTZI LEKU PUBLIKO BATEAN. BILDUMAGILEA EZ BAZARA, NOSKI.

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA ARGIA JENDEAREN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**



Gipuzkoako Foru Aldundia



Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L.
Ametzagaiña Taldeko partaidea.
Lehendakaria: Bego Zuza.
Zuzendaria: Estibux Eizagirre.
Erredakzioa: Asier Gonzalez de San Pedro,
Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Estibux Eizagirre,
Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaitz,
Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Nahia Ibarzabal,
Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza,
Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador.
Argazkilaria: Dani Blanco.
Produktzioa eta inprimaketa: Antza S.A.L.
Administrazioa: Jone Arzallus,
Mari Karmen Loiarde.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua,
Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Soraluze, Bego Zuza.

DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU
ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU
ETA BALDINTZA BERTAN EGINEZ GERO.

Web garapena: Asier Iturralde.

Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012.

ISSN: 0213-909X.

Batzorde parekidea: 72562 E.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria.
Tel.: 943 371545.

Lapuri, Nafarroa Beherea eta Zuberoa:
Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel.: 559 473163.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina.
31001 Iruñea. Tel.: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus

Harpidetza: harpide@argia.eus

Erredakzioa: kazeta@argia.eus



PANORAMA

20 urtez adierazpen askatasuna jo-puntuan

"Goizero-goizero amosal bonba txiki batek, 50 bat gramokoa, eztanda egiten du Euskadin: Egin egunkaria". Hala zioen Eusko Jaurlaritzako Barne Sailburu Juan Mari Atutxak 1996an, gaur egun arte luzatu den 'Dena da ETA' teoriari atek irekiz. Atutxaren enbidoari eutsi zion Baltasar Garzonek 1998ko uztaillaren 15ean eta Espainiako 200 polizia bidali zituen Egin eta Egin Irratiaren kontra. Frankismo ostean bortxaz itxiarazitako lehen hedabideak izan ziren. Espainiako presidente Aznarrek, leku ezin egokiago batetik, Turkiatik, agindua Gobernuarena izan zela aditzera eman zuen, "ez ginela ausartuko uste zenuten ala?" esaldi famatuarekin. Ordutik adierazpen, iritzi eta prentsa askatasunek jo-puntuan jarraitu dute Euskal Herrian, Egunkaria, Ardi Beltza, Apurtu, Ateak Ireki, Mozal Legeen milaka isunak, txiolarri presoak, besteak beste, lekuko ilunak direla. Irudian: Egin-eko langileak Hernaniko errotatiban 1993an.

Argazkia: ARGIAko artxiboa - Testua: Axier Lopez



Zigor Kodea berri nahi du Espainiako Gobernuak, sexu harremanetan onarpena arautzeko.

t “Onarpena noiz ematen dizueten ez dakizuelako kezkatuta zaudeten gizon horiek guztiak: ez ezazue larrua inoiz gehiago jo. Benetan”

@IrantzuVarela

t “Zenbat buelta onarpenarekin, eta oso erraza da. Beste pertsona errespetatzean datza. Hain zaila da ulertzen?”

@Mama_Psicologa

t “Zuzenbidez dakitenek badakite: onarpena da giza-ekintzarik manipulagarriena. Ikusi bestela iruzurrak, faltsifikazioak, klausula abusiboak...”

@atroleando

t “Kezkatzen nau sexuan onarpenaz hitz egitea, ez delako desiraz hitz egiten. Onartzea ez zait iruditzen nahi izatearen sinonimoa. Zalantza feministak”

@Arantza_Gracia



Belfasteko erraustegi proiektua bertan behera utzi dute epaileek

Zero Zabor

@zero_zabor

Ipar Irlandako Apelazio Auzitegiak behin betiko erabakia eman du: legearen kontrakoa da Mallusken eraiki nahi duten erraustegiari emandako baimena. Goi funtzionario batek baimen hori eman izana Ostiral Santuko akordioaren kontraketat jo dute epaileek eta balio gabe utzi. Beren poza adierazi dute proiektuaren kontra No-Arc21 elkartearen borrokatu diren herritarrek.

Indaver konpainiak (Becon filialaren bitartez) Belfasten eraiki nahi duen erraustegiari bidea itxi diote epaileek, hura legeztatze baimenak era ez legearan eskuratu zituela ebatzita. Hasieratik polemikoa izan den Malluskeko

erraustegiak 2015ean ezezkoa jaso zuen, orduan Ingurumen ministroa zenak emanik, hondakinen kudeaketa egoki ez planteatzeagatik eta gizakien osasunari arriskuak eragiteagatik.

Hiriburutik oso hurbil Mallusk herriko Hightown auzoan eraiki nahi duten erraustegiak kiskaliko lituzke Belfast eta 10 udalerri gehiagotako hondakin nahasiak, Arc21 elkargoak biltzen dituen udalek sortuak, eta hasiera batean 240 milioi libra kostatuko litzateke (272 milioi euro).

Gero, ordea, Ipar Irlandako krisi politikoarekin ministroek karguak utzi zituzten, hondakinen kudeaketarako baimenak Ingurumen ministeriotik Azpiegituren ministeriora pasatu eta... ministrorik ezean goi funtzionario batek eman zion baimena erraustegiari 2017an.

“Frantziako Gobernuak politika kolonialista bortitz bati ekin dio hizkuntza gutxituen aurka”

IKASTOLEN ELKARTEA

Gai ugari jorratu ditu Ikastolen Elkartek, ikasturtearen balorazioan. “Frantziako Gobernuak, Hezkuntza Ministerioaren eskutik, politika kolonialista eta suntsitzaile bortitz bati ekin dio hizkuntza gutxituen aurka, eta ikastolak eragina zuzenean jasaten ari dira”. Nafarroan, Kontuen Ganberak ikastolen diru-kontuak aztergai dituela-eta, “horrela ibili behar izateak erakusten digu Nafarroan badirela ikastolen aurka gogor jo nahi duten sektoreak”. Jatorri atzeritarreko ikasleen eskolatzea orekatzeko proposamena aurkeztuko duela ere iragarri du. **2018-07-10**



FAUNA PUBLIKOA

"BBK Live festibalaren arrakastaz harro sentitu behar dugu denok Euskadin"

Alfonso Santiago,
Last Tourreko zuzendaria
(Radio Euskadi)

Kanpolarrosa festival



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

Ni saiatu naiz, benetan, Bilboko festibal erraldoiarengatik harro sentitzen. Ahalegin titanikoa, kasik astelehen goiz batean lanera joateko egin behar izaten dudana baino handiagoa: tenkatu dut harro sentitzeko muskulua, Mieltxo Saralegik 300 kilotik gorako harria altxatzeko erabili zuen teknika imitatuz, baina ezin urguilua bizkar gainean berdindu. Plof, erori da. Zainak lehertzerainoko esfortzua, inutilla.

Asteburu osoa pasa baitut jaialdiaren txioak ikusten BBK Liveren kontu ofizialean eta, dirudienez, Euskaraldiarekin gure hizkuntza normalizatzeko sortzen ari den kolorinetako kontsentsua ez da Kobetamendira iritsi. Jaialdiaren community managerra ez dago zalantzan Ahobizi edo Belarriprest izan nahi duen; La Oreja de Van Gogh da egiten duena, alegia, dena erdaretan eta euskaldunentzat Vincent zaharrak moztu zuen belarria: kartilagoa, odolbildua eta ubela.

Eta sare sozialak bakarrik balira: festibalarekin lotuta Areatzan antolatutako haurrentzako jai batean ere monitorea guztiak erdaldunak ziren, guraso batek salatu du.

Kondizio horietan, "Euskadi osoa" harro sentitu? Biztanleriaren parte handi bat, euskaraz bizi nahi duena, bigarren mailako herritar, barka, bezero gisa tratatzen baduzu, zaila egiten zait.

Kontuan izan BBK Livek jasotzen duen diru publikoa ere, ez baita txori-kaka -iazko edizioan 1,4 milioi euro-: instituzioak ari dira herritarrak "aktibatu" nahian euskaraz hitz egin dezaten; mesede handiagoa egingo ligukete duela hamabi urtetik txantxangorritzea lortu ez duten festibalari aginduko baliote hizkuntza-politika baztertzaille hau alde batera uzteko. ■

EZ HANKA EZ BURU!



ADUR

ANALISIA



Hezkuntza oposaketetako deskalabrua



Mikel Garcia Idiakez

@mikelgi

ARGAZKIA: IREKIA

Hezkuntzako oposaketak abiatu dira EAEn, eta asko dira haserre dauden irakasleak. Hainbat arlotan, eskainitako plazak ez dira beteko, lehenengo fasean bertan gutxiago izan direlako azterketa gainditzea lortu dutenak. Hala gertatu da, adibidez, Historian, Fisikan edo Matematikan (eskainitako plazen herenak baino ez du gainditu lehenengo azterketa Matematikan, gutxi gorabehera), eta Teknologiako 60 plazetarako 60 irakasle egin dute aurrera lehenengo fasean. 2016an antzera gertatu zen, eta orduan esandakoa errepikatu dezakegu: edo balio ez duten ehunka irakasle ditugu ikastetxeetan lan egiten, edo eredu desegokia eta antzua dira oposaketak.

Gaitegi desegokiak, gaizki diseinatuak azterketak eta irizpide subjektibo-zorrotzegia duten zuzentzaileak, horiek dira oposizioetara aurkeztu direnen kezaketako batzuk. Ongi laburbildu du Jabi Isasik, Marrazketako azterketa gainditu ez duen irakasleak: "Dagoeneko egiten dudan lan bat, ez dakit zenbat ordu sartu eta gero, ebaluatzaileen arabera, ez naiz heltzen betebehari hori betetzera?" (5,6 izan da bere tribunalak jarri duen notarik altuena). Irakasle ona ala txarra

zaren, ez dut uste horretarako neurgarri fidagarria direnik oposaketak, eta beraz, ez dute beren funtzioa betetzen.

Irakasleria egonkortzeko funtzioa ere, ez dirudi betetzen dutenik (plazak ez dira beteko, esan bezala). Irakasle ordezkioak punta batetik bestera dabilta dantzan urtero, eta karreran gainditutakoa buru-belarri berrikasten jartzen dira bat-batean, gobernuak erabakitzen duenean oposaketak egingo dituela. Ez al litzateke zentzuzkoagoa urteak pasa ahal, azterketa akademiko bat pasa behar izan gabe, esperientziak lanpostu finkoa ziurtatzea eta irakasleari jarraipena egitea, esaterako zuzendaritzak eta mintegi-buruek irizpide egokiagoen arabera egindako barne-ebaluazio bidez?

Prekarietatearen aroan, amu tranpatia

Funtzio bat ongi betetzen dute oposaketek, hori bai: prekarietatearen aroan, askok eta askok oposaketak gainditzea eta lanpostu finkoa lortzea helburu eta amets duten aroan, amu tranpatia bihurtu dira oposaketak, eta gero eta gehiago dira jokoan parte hartzen dutenak, hautatuak izango diren promesa horri segika.

EKONOMIAREN TALAIAN

Gazteen etorkizun profesionalarekin zer?



Juan Mari Arregi

Joan den astean bi albiste garrantzitsu izan dira, gazteen lan etorkizunari eragiten dietenak, eta beraz, gobernu, administrazio nahiz hezkuntza arduradunentzat hausnarke-ta eta eztabaidarako gai izan beharko luketenak.

Lehen: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen txosten baten arabera, azken hiru urteetan hazkunde ekonomikoa izan den arren, ez dira gutxi ikasketak izan arren atzerrira migratu behar izan duten herritarrek. Txostenak dio goi ikasketak dituztenen artean "sarrera baino irteera gehiago" egon dela Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan.

Bigarrena: Bizkaiko Sendagileen Elkargoak esan du ez direla "ikasle eta fakultate gehiago behar". Aldiz, Adecco giza baliabideen enpresaren iritziz, badaude sektore ugari zenbait lanpostu betetzeko zailtasunak dituztenak, hala nola informazio eta komunikazio teknologietan, automozioan, metalgintzan, logistikan, elikaduran eta merkataritzan. Adibidez, metalaren sektorean falta dira tornulariak, fresatzaileak, prentsatzatzaileak, garraiolariek, makinaria mantentzen lan egiten duten teknikariak...

Beste behin azpimarratu behar dugu Lanbide Heziketaren garrantzia, garai bateko aprendizaren eskolak gogoan. Administrazioen ardurak gazteak orientatzea urratu behar duten ibilbide profesionalan. Unibertsitatean joan edo eskulanean hasi, ondo legoke formaziorako arduradunek gazte eta gaztetxoek begiratzea, euren nahi eta beharren arabera lana aurki dezaten eta bide egokia har dezaten, izan ikasketekin segitzeko, nola profesio batekin hasteko. Langabezia eta frustrazio egoera ugari saihestuko genituzke horrela.



THEHIDDENFLAG.ORG

LGBT bandera argitara atera du irudimenak Errusian

ERRUSIA. Errusian debekatuta dago LGBT bandera publikoki erakustea. Sei ekintzaile hego amerikar hauei desobeditzeko modu orijinala otu zaie, ordea. Bakoitzak herrialde bateko futbol kamiseta jantzi eta bandera osatu ostean kalera irten dira. Sare sozialetan asko zabaldu da beren ekimena.

Martxoaren 3ko gertakarien aitortza Europara iritsi da

Arabako Alea

@ArabakoALEA

Martxoaren 3ko biktimek Europako Parlamentuko Eskari Batzordean hitza hartu zuten joan den astean, 1976an Gasteizen izandako gertakarien egia, justizia eta ordaina bermatzeko eskatu diezaion Europak Espainiari.

Berriz ez dadila pasa

Martxoaren 3 elkarte-ko ordezkari Andoni Txasko eta Nerea Martinez izan dira Europako Parlamen-tuan. Egia, justizia eta ordaina eskatzeaz gain, gertaturikoa ber-riz ez errepikatzeko bermeak ere galdegin dituzte.

Gutuna eta ikerketa

Eskaera egin ostean, Parlamentuko dipu-tatuek euren iritzia eman dute. Espainiako Justizia Ministerioari idatzi bat helaraztea erabaki dute. Europa-ko beste bi komisario-ri ere helaraziko diote gutuna, gertakarien ikerketa abiarazteko.

“Aurrerapausoa”

Elkarteak 2015eko martxoaren 3an aurkeztu zuen Euro-pako Parlamentuan agerraldia egiteko eskaria. Orain, bertan hartu den erabakia “zigorgabetasunaren eta ahanzturaren kon-trako aurrerapausoa” izango dela uste dute.

KUTSADURA



7.000

Paue ondoko planta kimiko bat itxi dute, onartua baino 7.000 aldiz gehiago kutsatzeagatik. Ekologistek salatu dute 6 hilabeteko atzerapenaz jakinarazi dituela plantak irregulartasun hauek.

20

kilometrora dago planta Zuberoako mugatik, Maule hiriburutik 27ra.



MIGRAZIO POLITIKA

Baionatik Hendaia-raino Bizik antolatutako etokinengarako elkartasunezko ibilaldian 200 lagunetik goitik parte hartu dute uztailaren 13 eta 14an. Legebiltzarrean eztabaidatzen ari diren Geriza-Immigrazio legea salatu dute Hendaia-ko Erretentzio zentroaren aitzinean.



GOSE GREBAN

Sei maputxe gose greban daude, horietako bat 40 egunetik gora, bi anairen kontrako epaiketagatik: eliza ebanjeliko bat erretzea egozten diete, frogarik gabe eta inork aurpegirik eman gabeko testigantzetan oinarrituta.



TASER PISTOLAZ HILA

Frantziako polizia-k tasertak tirokatuta hil da 30 urte inguruko gizona, Vic-sur-Aisne herrian. Poliziak ez du argitu zenbat aldiz egin zuen tiro. Lapurreta bat medio, gizonari lapurtutakoa uzteko eskatu eta hark “Allahu akbar” erantzun zuenean hartu zuten mendeen agenteek.

Europarrok nola afrikartuko garen datozen hamarkadetan



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Hogeita hamar urte barru, 2050ean, Europak 450 milioi biztanle edukiko ditu eta Afrikak, aldiz, 2.500 milioi. *Europaranzko korrikaldi handia* liburuan Stephen Smith kazetari eta irakasleak bi kontinenteetako demografiaren dinamikak aztertutik dio afrikarren Europarako migrazioa gero eta handiagoa izango dela eta saihestu ezinezkoa dela Europako populazioaren afrikartzea. Horra bi-hiru belaunaldi europarrek kudeatu beharko duten gai nagusi korapilatsua.

Liburu deserosoa *Ruée vers l'Europe*. Nazionalitate frantsesa eta estatubatuarra dituen Stephen Smith kazetari lanetan aurrerazale curriculum dotorea daukan arren *Le Monden* eta *Liberationen* nazioarteko ardurak eduki izanagatik, *Ruée vers l'Europe* liburuak eskuin muturreko taldeetan eduki duen arrakastaz azalpenak eman beharra dauka. Honela erantzun dio *Jeune Afrique* [Afrika Gaztea] astekariari: "Beti diegu beldur okerreko aldeko jendearen txaloiei. Nik ere ez nituzke nahi, noski, haserretzen nau errefuxiatuen krisiaren ostean Merkelen kontrakoak indartzen ikustea Alemanian edo Front Nationala Frantzian. Baina ezin zara aritu horretaz kezkatuta. Gai bat argitu nahi duzunean, ez dago zure esku lagunak edo etsaiak egitea". Eta Smith aurreikusten duena ez da europarrontzako erosoia.

Funtsean Smith iragartzen duena da Afrikak egingo duela aurretik mundu osoak -Europak, Latino Amerikak, Asiak- egin duena: bere trantsizio demografikoa burutzea. Afrika populazio leherketa bete-betean dago 1930az geroztik: orduan zeuzkan 150 milioi biztanleak zortiz biderkatu dira gaur daukan 1.300 milioiak harrapatu arte, eta gainera hauen %40ak 15 urte baino gutxiago dauka.

2050. urterako -30 urte ez da hain beste...- bikoiztu egingo da Afrikako biztanleria, eta Smith dioenez "hau ez da burutazio hutsal bat, urteotan sortuko diren haurren gurasoak dagoene-

koz bizirik daudelako". Bitartean, Europak 450 milioi biztanle edukiko ditu, populazio are zaharrago bat osatuz. "Eta itsaso estu baten beste aldean bizi diren afrikar gazteok egingo dute europarrok egin genuen gauza bera hilkortasun handiko familia ugariatatik familia txikiago eta bizi luzeagokoetara pasatu ginenean: bizimodu hobe baten esperantzan emigratuko dute masan".

1850etik Lehen Mundu Gerra bitartean -1914- 60 milioi europarrek migratu zuten, horietatik 43k AEBetara. Pentsatu XX. mende hasieran Europak 300 milioi biztanle zeuzkala. "Nik diodana, funtsean, da garai batean Europako familia guztiek zeukaten bezala osaba-izebaren bat Amerikan, bi belaunaldi barru Afrikako familia guztiek edukiko dutela ilobaren bat Europan. Inkestetan 15-25 urteko afrikarren %42k dio alde egiteko asmoa duela. Afrika da abiatzeko zorian den kontinente bat".

2050a bitartean, beraz, Europa afrikartu egingen da. Ez dugu sekula ikusi datorkiguna bezalako presio demografikorik. Eztanda demografikoaren ostean barealdia eta gero zahartzea ezagutu dituzten beste ereduak aztertuta, Smith kalkulatu du Afrika 2050ean hasi litekeela bere herritarren ihesiari eusten, Mexiko AEBetara edo Turkia Europara milioika jende bidali ostean hasiak diren bezala bere gazteei eusten.

Migratzen dutenak ez dira pobreenak, askok uste duenaren kontrara. Ez du ihes egiten nahi duenak, hala izan balitz



90eko hamarkadako gerra ugariak askoz jende gehiago ekarriko zuten Europarantz. Ez, ahal duenak migratzen du. Munduaren ezagutza bat eduki behar da, ikasketa maila bat... eta bidaia luze arriskutsuan abiatzeko dirutxo bat pila-tuta edukitzea.

Herrietatik ihesi joandako gazteak lehenbizi hiri handietako txabolategietan kokatu dira, eta beranduago adorea eta ahalak bildutakoak ausartuko dira Europarako jauzi handia saiatzera. Ez dago atzerriko laguntzaz sustatutako garapen proiekturik jatorrian kateatuko dituenik, ez baitago modurik denentzako lanpostu txukunik sortzeko. Ez bederen *boom* demografiko hau natalitate kontrolaz bideratu artean.

Hesiek ez dituzte geldiaraziko

Afrikako herrietako gazteak badakite hiri handietako txabolategietan nolakoa den bizimodua, baina hala ere segituko dute haietara joaten. Nahiago dute apustu egin eta galtzea beren patua aldatzeko ezer egin gabe geratzea baino. Hedabideetan ikusi dute nola bizi daitekeen Europan, bertara sartzeko hesiak gainditzea lortuz gero.

Eta behin hona iritsitakoan, sare sozialek laguntzen diete bizimodu bikoitza eramaten, fisikoki Europan, birtualki Afrikan. Azken finean, beren sorterritik migratu duten klase ertaineko europarrek ere antzeko bizi bikoitza bizi dute Singapur, Qatar edo Suedian. Ez dira erabat ez hemengo eta ez hango.



AFPk zabalduko argazkian, etorkinez zamatutako itsasontzia Italiaren lurralde den Lampedusa uhartera iristen 2015ean. Orduko migrazio krisi famatutik, ordea, europarrek gaiaren irudi okerra atera dute Stephen Smithen aburuz: 2015ean Europara iritsitako etorkinen %20 baizik ez ziren afrikarrak, gehienak Ekialde Hurbilekoak izaki. 2016an krisia baretu zen, baina iritsitako afrikarren kopurua %25 ugaitu. Afrikatik datorren gazte uholdea hasi besterik ez baita egin.

Europak azken 30 urteotan garape-nerako laguntzetatik harago beste zerbaitetan lagundu behar zien Afrikako herrialdeei: kontrol demografikoan. Zergatik ez, India eta Txinari lagundu baldin bazaie? Dagoeneko, ordea, berandu da Europarentzako, demografikoki bost aldiz handiagoa izango den bizilagun txiroaren nahiari ezingo baitio aurre egin mugak zigilatuz. “Mugak ixteko ahalegin guztiak alferrikakoak suertatu dira. Jendeak pasatuko dira, nola edo ahala. Geuk berdin egingo genuke haien lekuan bageunde”.

Europarron begi eta interesetatik abiatuta, ondorengo urteei begira, Smithek bost agertoki posible irudikatzen ditu. Bat, *Eurafrika* deitzen duena, non etorkin guztiei ongi etorria egiten zaien. Baina bide garestia izateaz gain etorrera hori aski izango ez denez gero

eta zaharragoa diren europarren erretretak ordaintzeko, identitate arazoetan oinarritutako krisiak dakartza Europa osora eta AEBetan Trumpek ezarri duena bezalako identitate politikei bidea ireki die.

Bigarren posibilitatea, *Europa gotorleku*. Turkiarekin etorkinak kontrolatzeko sinatu duena bezalako itun ekonomikoak zabalduz, mugetako kontrola gogortzea diru truke. Smithek duda egiten du uholdea geldituko duenik. Hirugarren bidea, *Deriba mafiosoa*, dagoeneko ikusten ari garena: batetik etorkinak zukutu, bestetik etorkinen kontrako erreakzio populistak sustatu.

Laugarren joera posiblea, *Postkolonialismora itzultzea*, Europak lekuko elite afrikarraren esku uztea etorkin uholdea bideratzeko lana, halako elkarlan kontratu gisakoz jantzita. Eta azken

hipotesia, bostgarrena, *Denetik zerbait*, Espainiak azken urteotan erabili omen duen estrategia nahasketa.

Hipotesiak hipotesi, dagoeneko errealtatea da populismo identitarioen indartzea, Smithek egiaztatu duenez: “Aski da European itzuli bat egitea, Italiatik Suediara, Alemania edo Hungariatik pasatuz. Hori aldatzeko, errealtate eta humanitatezko hiru printzipio uztartu beharko ditugu. Bat, europarrei dagokie nor onartu etxean eta nor ez. Bi, Europak ezin du ahaztu Afrika, muga ez da hesi bat baizik eta negoziaketa eremua. Hiru, banaketa ez da orain herrialde aberatsen eta pobreen artean baizik eta mundializazioaren irabazle eta galtzaileen artean. Afrikan bezala European irabazleek iseka egiten badiete galtzaileei, denok galduko dugu”. ■



50 urtez elkarrekin



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



«Gasbidea egiteko baimenaren truke 400 peso eskaini diote familia bakoitzari, 18 euro»

Raquel Padilla
Yaqui indiar zuria

Egungo Sonora estatuan (Mexiko) bizi diren Yaqui eta Mayo herrien alde lan egiten du Raquel Padilla Ramos antropologoak. Herri hauen historikotasunaren eta lurraldetasunaren balorea erakutsi nahi du, ura eta lurra lapurtzen dizkieten aurrean.

Testua: Reyes Ilintxeta
Argazkiak: Dani Blanco

Zertan datza zure lana?

Mexikoko ipar mendebaldean, Sonora estatuan, bizi diren Yaqui eta Mayo herriak dira bereziki interesatzen zaizkidanak. Haien historia eta ezaugarriak ikasteaz gain, nire helburua haien kultur eta lurraldearen defentsa mugimenduetan laguntzea da. Nire ikerketak haien zerbitzura jartzen ditut.

Nola, adibidez?

Yaqui ibaia asko dira urtetan eragin-dako kalte ekologikoak. Gaur egun gasbide bat eta zenbait meatze proiektu daude abian. Mayoan lurraldean ere badira mehatxuak, herdoiltze laku bat egiteko asmoa, esate baterako. Gasbidea egiteko baimenaren truke 400 peso eskaini diote familia bakoitzari, 18 euro.

Zer irain mota da hori? Herriek esan zuten ezetz, diruarekin nahiz dirurik gabe, ezetz.

Nire ikerketekin, herri horien historikotasunaren eta lurraldetasunaren balorea erakusten saiatzen naiz. Modu honetara azaldu nahi dut zergatik ezin diren zenbait aldaketa egin eta are gutxiago haiei galdetu gabe. Oso garrantzitsua da. Legeak dioenaren arabera kontsulta egin behar diete halako proiektuak abian jarri baino lehen, baina ez dute egiten.

Nolakoa da herri indigenen mapa Mexikon?

Badira herri indigena asko, eta hizkuntza ugari. Mexikok dituen 127,5 milioi biztanleetatik %12 indigenak dira. Ia 70

Raquel Padilla Ramos

Hermosillo, Sonora, Mexiko, 1967

Antropologia eta Historia Institutu Nazionaleko irakasle eta ikerlaria da. Etnologiari buruzko doktoretza tesia egin zuen Hanburgoko unibertsitatean. Urteak daramatza Mexikoko ipar mendebaldean dagoen Yaqui herri indigena aztertzen. Ekainean Espainiako Estatuan izan zen hitzaldiak ematen eta dokumentazio bila, yaquien gobernu tradizionalak hala eskatuta. Euskal Herrian hainbat mintzaldi eskaini zituen eta Iruñean Tomas Lizasoain, XVII. mendean hara joandako bertako jesuitaren inguruko informazioaren eskizari ibili zen.





herri daude. Populazio handiena dutenak Nahua eta Maya herriak dira. Lehenak ia bi milioi eta erdi kide ditu eta bigarrenak milioi bat eta erdi inguru. Sonoran badira bederatzi talde etniko, guztira 138.000 pertsona, hau da populazioaren %5,2. Yaquien herria 30.000 biztanlek osatzen dute ofizialki, eta 40.000k haien kalkuluen arabera. Zortzi herritan banatuta daude. Zortzi herriak fundatze-herriak dira eta haien sistema soziopolitikoaren oinarriak dira.

Herri indigenen arteko harremanik bala da?

Sonoran dauden herrien eta Yucatango mayen artean, adibidez, ez dago harreman zuzenik, mitologia muin bakan batzuk izan ezik. Aldiz, ia guztiek borroka fronteak irekiak dituzte hainbat proiekturen aurrean. Oro har, esan daiteke herri indigenek ez dituztela duela 100 edo 200 urte izan zituzten lur eremuak. Yaquien herria, txikia izanik ere, bere lurraldea hobekien kontserbatu duena da. Ez da lehen izan zutenaren ezta herena ere, baina oso garbi dute zeintzuk diren haien arbasoen lurraldearen mugak. Bi

muino dira mugarri nagusiak, *takalai* sardede edo urkila itxura dutenak.

Harrigarria da nola ezagutzen duten lurraldea. Ume txikiek ere esaten ahal dizute nolakoa den, zein tamaina duen, non dauden mugak, Yaqui ibaiko ponpa eta ubideetatik zenbat litro ur pasatzen diren... Oso garrantzitsua da ezagutza horiek transmititzea. Oso lotuta daude lurrari, haien identitatea ondare immaterialean oinarritzen delako.

Ibaia da herriari izena ematen diona. Zein da bere garrantzia?

Yaqui hitzak "ozenki mintzo dena" esan nahi du, eta halakoa da, edo zen, ibai hori. Haiek haien buruari "yoreme" esaten diote: "jendea, tradizioa errespetatzen dutenak", eta zuriak kontrakoa dira; "yori". Ibaia esentzia da. Yaquien jatorria lau elementu funtsezkotan dago: lurra, ura, airea eta sua. Elementu sakratuak dira. Yaqui ibaia, inguruko labore lurra bezala, ezinbestekoa da haientzat, baina arazoa da aspalditik badirela gatazkak ibaiaren urarengatik eta yaquiak borroka guztiak galtzen ari dira. Latzena XIX. mendean hasi zen. Politika libera-

Iruñean

"Labrit Ondareko lagunek gonbidatu naute etortzera. Tomas Ignacio Lizasoain izeneko hemengo jesuita hara joan zen XVIII. mendean eta bera izan zen Bideko Ama Birjinaren debozioa eraman zuena. Oso errotuta dago debozio hau yaquien artean eta ni haren arrastoaren bila etorri naiz. Ez dut bere bataio agiria aurkitu, agian inguruko herriren batean jaioa zelako. Boloniara ere joan beharko dut han hil zirelako deportatuak izan ziren euskal jesuita asko".

Emakumeak, arriskutsuenak

"XX. mende hasierako kronika batek dio emakume yaquiak zirela erbestera behar ziren lehenak, haiek zirela arriskutsuenak, yoriekiko (zuriekiko) gorrotoa transmititzen zirelako haurrei".

lei jarraikiz, zuriek salgai jarri zituzten indigenen lurra. Ibaia bideratzen hasi ziren kanpotarren lurra ureztatzeke, horiek benetako *agrotitanak* bihurtuz. Geroztik, beste hamaika proiektu egin dute eta gaur egun erreka ur xirripa bat besterik ez da haien lurraldean. XVII. mendean hara iritsitako lehen misiolariak ur emaria zela-eta ibaia Guadalquivirrekin alderatzen zuten.

Horren ondorioz nekazaritza ikaragarri murriztu da. Nazio Batuen Erakunderaino eraman dute ahotsa, gutxieneko emari ekologikoa eskatuz, bertako landareak eta fauna mantendu ahal izateko. Flora behar-beharrezkoa dute elikatzeke ez ezik sendagai gisa eta baita erritualetarako ere. Makalak esate baterako. Aste Santuko erritualetarako behar dituzten makal hostoak eta lez-



kak lurraldetik kanpo bilatu behar izaten dituzte orain.

Nolakoa da haien erlijioa?

Katolizismo berregituratua. Jesuitek moldaketa batzuk egin zituzten katolizismoa yaquien munduan sartzeko. Yaquiek gustatzen zaiena eta kome-ni zaiena hartzen dute eta gainerakoa errefusatu. Antropologoek "katolizismo natiboa" deitzen diogu horri. Liturgia katoliko zaharra gordetzen dute eta apaizak bizkar emanda eta latinez ematen du meza, adibidez.

Zu yaqui hizkuntzan mintzatzen zara?

Ez, ez. Nahiko nuke. Hitz eta esaldi batzuk esaten badakit, eta zerbait irakurtzeko gai naiz, baina ez da erraza. Agurtu bai, haien hizkuntzan, eta saiatzeko naiz ikasten.

Eta nola dago hizkuntza?

Mexikoko ipar-mendebaldean dauden hizkuntza indigenen artean indartsuenetakoa eta erabilera errotuena duena da. Gehienek hitz egiten dute. Hala ere, hizkuntza arriskuan dago, gaztelaniaren

mehatxupean. Zaharrenak eta 12 urtera arteko haurren artean soilik aurki daitezke elebakarrak gaur egun. Helduak ongi mintzatzen dira gaztelaniaz eta askok ingelesa ere badakite. Arizonan bizi diren yaquien komunitateekin harreman handia dute. Oso ohikoa da musikari eta dantzariak Amerikako Estatu Batuetako baimen bereziak izatea hara joateko. Arizonan 8.000 yaqui inguru bizi dira, eta hango gobernuaren aitopena dute.

Nola iritsi dira hara?

Han daudenak erbesteratuak dira. Yaquiak Mexikoko Gobernuaren aurka altxatu ziren garaian joan ziren, XIX. mende bukaeran, Porfirio Díaz diktadorearen garaian. Yaquiek badaramatzate ia bi mende borroka latzetan haien lurraldetasunaren defentsan. Arazoa hasi zen lurrak kentzen hasi zitzaizkienean. Zuriak pentsatzen zuten indigenen lurraldeetan gutxiegi produzitzen zela eta atarramentu handiagoo atera behar zela. Bizitza eta lurra ulertzeko bi moduek egiten dute talka: indigenek ez dute ikusten lurra nekazaritza edo abeltzain-

tzarako produkzio toki bezala, baizik eta kultura garatzeko eta bizitzeko leku bezala. Haiek *toosa* (habia) esaten diote beren lurraldeari. Espazioaz eta bere erabileraz zuriaren kontzepzioa eta haiena oso desberdinak eta bateraezinak dira.

Borrokek zer ondorio izan dituzte yaquien herrian?

Latzena Porfirio Díazen diktaduran iritsi zen. Sarraski ikaragarriak egin zituzten herrietan. Ehunka gizon hil, eta emakume eta haurrak, batzuetan familia osoak, erbesteratu zituzten batez ere Yucatan aldera, aziendetan lan egiteko. Yaquiak oso indartsuak eta langile onak dira. Garai hartan Sonoran 10.000 bat yaqui baino gehiago ez zen gelditu, baina porfiriatoa amaitu ondoren askok eta askok hartu zuten etxerako bidea. Lortu zutena kontrako efektua izan zen: lurraldearekiko atxikimendua areagotu zen erbestearen ondorioz.

Bestalde, yaquiak oso negoziatzaile trebeak dira eta hitzarmen asko egin izan dute batzuekin eta besteekin haien lurrak berreskuratzeko. 1910ean Mexikoko iraultzan parte-hartze garran-

tzitsua izan zuten, gerra amaitutakoan lurraldea itzuliko zieten promesarekin. Ez zen erabat bete eta liskar gehiago izan zuten urtetan. 1940an beren lurraldearen heren bat aitortu zien Mexikoko Gobernuak. 400.000 hektarea eskasekin geratu diren arren, haiek uste dute oraindik zati handiagoa berreskura dezaketela eta horretan ari dira jo eta ke.

Hortik dator Espainian zarela baliatuz egin dizuten enkargua?

Bai. Hiru egun baino ez neramala Madrilen, Loma de Bacum herriko gobernu tradizionalaren agindua jaso nuen artxiboetan bilatzeko agiri garrantzitsu batzuk. Zehazki yaquien lurraldea aitortzen duen XVII. mendeko dokumentua aurkitzeko eskatu didate. Felipe III.a Espainiako erregeak 1615ean sinatutako agiria da, non lehen aldiz idatziz eta modu ofizialean zehazten den zeintzuk diren herri horren lurraldearen zabale-
ra eta mugak.

Horretarako, Sevillara joango naiz. Rifeko gudan soldadu aritzeko Mexikoko Gobernuak Espainiari eskaini zion deportatuen batailoien informazioa ere bildu nahi dut. Hori litzateke Yaqui herriaren kontrako deportazio andanaren azkena.

Nolako harremana dute kultura indigenek Mexikoko Gobernuarekin?

Herri indigenen garapenerako erakundeak ditu Gobernuak, baina aldi berean, haien lurraldeak suntsitzen dituzten kanpoko enpresa handiak babesten ditu. Mexikoko Gobernuak bera baino askoz indartsuagoak dira indigenen lurraldeak suntsitzen dituzten enpresa transnazionalak. Badituzte haien poliziak, sikarioak... Droneak sartzen dituzte, esate baterako, espioi moduan. Argi esan daiteke, gainera, beste aldera begiratzen duela Gobernuak mafiek eta droga-trafikatzaileek droga sintetikoak sartzen dituztenean.

Nolakoak dira yaquiak?

Kronika zaharretan herri menderagaitz, borrokalari eta burugogor gisa agertzen da. Gaur egun oraindik askok beldurra diete oldarkorrek direlakoan, baina ez da egia. Erasoan aurrean baino ez dira defendatzen. Oso argi dute sarraski baten biktimak izan direla.

Gauza batzuetan oso inozoak dira. Eta oso errezelokoak, aldi berean. Ez



Raquel Padillak dioenez, Yaqui herriak elite intelektual garrantzitsua du eta lege kontuetan oso trebeak dira: "Ez da komunitate indigena handiena, baina bai enblematikoa, eta beste indigena askok imitatzen dute haien gobernuarekiko harremanetan". Argazkia, Raquel Padillak utzia.

Bake bila

"Bi hitzetan laburbil daiteke yaquiek zer nahi duten: eman bakea! Utzi bakean eta ez sartu gure kultura eta gobernu moldeekin. Oso zaila dute aurrera ateratzea dauzkaten baliabideekin. Yaqui ibaiaren urik gabe lurak alokatzen dituzte eta askok, *yori* (zuri) askok, ez diete ordaintzen, orduan beste bide batzuk bilatu behar dituzte. Jende ugari inguruko hiri txikietako fabriketara joaten da. Gatazka berriena da lurraldea urratzen duen gasbidearen kontrako borroka. 1824tik yaquiak borrokan ari dira. Gaur egun ez dira armekin altxatzen, baina erresistentzia estrategia asko dituzte".

zaie gustatzen erritualetan inor argazkiak egiten ibiltzea. Ez da Bideko Ama Birjinaren argazkirik. Turismoa ez zaie interesatzen, aitzitik ez dute nahi. Onartzen dute jendea joatea haien dantza sakratuak eta errituak ikustera, baina errespetuz. Oso histrionikoak dira eta txantxazaleak, bereziki kanpotarrekin. Bestalde, oso sentikorrak dira. Misio-lariak horretaz ohartu ziren. Etxera gonbidatzen bazaituzte eta ezin bazara joan, oso triste gelditzen dira.

Kanpora ateratzea eta gauza berriak ezagutzea asko gustatzen zaie. Misio-lariei harrera egin bazieten izan zen interesatzen zitzaielako. Misio-lariak erritualetan berri eta aberatsa ekarri zuten, arreta biziki pizten zien yaquiei. Misio-lariak nekazaritza teknika berriak ere ekarri zituzten. Yaqui herriak elite intelektual garrantzitsua du. Badira historialariak, hizkuntzalariak, idazleak, abokatuak, antropologoak, musikariak... Lege kontuetan oso trebeak dira. Ez da komunitate indigena handiena, baina bai enblematikoa, eta beste indigena askok imitatzen dute haien gobernuarekiko harremanetan.

Eta zuk zer harreman duzu haiekin?

Ez naiz han bizi, baina askotan joaten naiz. Batzuetan esaten dute: "Hor doa indiar zuria". Oso aktiboak dira Facebook-en eta oso harreman gertukoa dugu sarean. Badakite haien alde lan egiten dudala eta izugarri eskertzen dute. ■

Indar aurrerakoien borroka Latinoamerikan

Latinoamerikako bataila gogorra izaten ari da. Inflexio puntua, Lula da Silvak azaldu bezala, 2009an gertatu zen Barack Obamak kargua hartu zuen unean: “Brasilekiko harremanetan George W. Bush eta Condoleezza Rice askoz ere demokratagoak izan ziren Obama eta Hillary Clinton baino”. Obamak, 2009ko ekainaren 28an, kargua hartu eta sei hilabetetara, Hondurasko estatu kolpe militarra babestu zuen. Ondoren, hainbat herrialdetan esku-hartze edota desegonkortze estrategia anizkoitzak jarri ziren martxan Amerikako Estatu Batuetako (AEB) aliatuak diren tokiko oligarkiak laguntzeko.

Estatu kolpeak ez dira desagertu, teknika desberdinekin eraldatu eta mozorrotu baino ez dira egin: Mendebaldeko kapitala duten hedabideek eta tokiko oligarkiek kontrolatzen dituzten oligopolio mediatikoek intoxikazioa informatiboa zabaltzen dute; AEBek zigor ekonomikoak jartzen dituzte edota tokiko oligarkiarekin ekonomia boikoteatzeko estrategiak garatzen dituzte; eta aldi berean, atzerritar diruak gizarte mugimenduak eta Gobernu Kanpoko Erakundeak finantzatu, kooptatu eta bertako langileak trebatu egiten dituzte gobernuaren kontrako borroka eta matxinada bultzatzeko.

Latinoamerikan gertatzen diren matxinada eta “iraultza” saiakera guztiak eskumakoak dira. “Gizarte zibila”-k bultzatzen dituen sasi-iraultza guzti horiek enpresariak, bankariak, lur-jabe handiek, eskuineko politikariak eta AEBetako gobernuak babesten dituzte. Adibide paradigmaticoak dira 2008ko Bolivia, 2013tik Venezuela eta 2018ko Nikaragua. Bakoitzak bere ezaugarri propioekin, baina inoiz ez da eskatzen estatuaren baliabide finantzarioak herriaren zerbitzura jartzea, gastu soziala handitzea edota lur-jabe handien lurrak



Asier Blas Mendoza

EHU-KO IRAKASLEA

@AxiBM

Latinoamerikan gertatzen diren matxinada eta “iraultza” saiakera guztiak eskumakoak dira. “Gizarte zibila”-k bultzatzen dituen sasi-iraultza guzti horiek enpresariak, bankariak, lur-jabe handiek, eskuineko politikariak eta AEBetako gobernuak babesten dituzte

desjabetzea nekazari pobreen artean banatzeko.

Bitartean, 2009an Ekuadorren estatu kolpe saiakera egon zen eta 2012an estatu kolpe instituzionala gauzatu zen Paraguain. 2016an Dilma Rousseffen kontrako estatu kolpe instituzionala eman zen Brasil. Hamarkada asko dira Latinoamerikako estatu aparatuen

oligarkien esku daudela. Lehenengo hedabideek ezkerreko politikariak kriminalizatzen dituzte eta ondoren horien aurkako prozesu judizialak jartzen dituzte martxan. Begi-puntuan dituzte hauteskundeak irabazi ditzaketen liderak. Rousseffen kontrako estatu kolpea hankamotz geratuko litzateke Lula hauteskundeetara aurkeztuko balitz, horregatik bere kontrako prozedimendu judiziala. Antzekoa da Rafael Correalen aurkako jazarpen judizialaren motiboa. Lidergoen garrantzia handia da Latinoamerikan. Mendebaldeko herrialdeetan sistema demokratikoak oso instituzionalizatuta eta teknokratizaturik daude, horri esker, gobernurik gabe edo lider kaskarrekin sistema gai da funtzionatzeko Belgikak edota Italiak urteetan erakutsi duten bezala. Correalen moduan, erakundeak geroz eta indartsuagoak izan, orduan eta garrantzia txikiagoa du lidergoak, eta alderantziz. Latinoamerikan ahultasun instituzional handia dago, horregatik, lidergo indartsu batek erakundetze ahala ordezkatu eta benetako instituzionalizazio prozesuak eraikitzeke balio dezake. Lana ez da nolanahikoa. Ekonomian munduko kontinente desparekatuena da. Botere ekonomikoa, mediatikoa eta politikoa AEBen zerbitzura dauden elite gutxi batzuetan kontzentratuta dago eta horren aurrean, justizia soziala bultzatzeko politika egiteak eta instituzionalizazioa eraikitzea polarizatu egiten du.

Erronka horiei aurre egin beharko die Andrés Manuel López Obradorrek Mexikon. Gai bada politika aurrerakoiak martxan jarri eta instituzionalizazioa bultzatzeko, nahiz eta era moderatuan egin, polarizatu egingo du eta horren aurrean oligarkek gerra ekonomikoaren, sikarioen (Kolonbian bezala) eta sasi-iraultzen bidea hartu ohi dute. Gogorra izango da borroka. ■

Abantoko parke teknologikoa: ezkerrek badu eredurik?

Abanton agintariek planteatu duten parke teknologikoak hizpidea sortu du azken hilabeteotan Bizkaiko mendebaldean. Autobideari itsatsirik landa lurretan 2.000 lanpostu sortuko omen dituen 4.0 industria proiektu moderno dator gureru. Finantzazio publiko-pribatuz energia arloa izango du ardatz. Foru Aldundia, Petronor eta Iberdrola dira ekimenaren sustatzaile nagusiak.

Eskualdeko udal guztien alkatetza duen EAJ-PNVko agintarientzat hori izango da gure inguruko langabezia tasa izugarriak amaitzeko antidotoa. Ikerkuntza eta balore erantsi handiko jardun garbia. Alkateek beraz, besoak zabalik egin diote men Sabin Etxeko nagusien proiektu berriari.

Ezkerreko oposizioak berriz, EH Bildu eta Podemosek, parke teknologikoa bai, baina kokapenarekin ezadostasunak adierazi ditu. Landa lurrak mantentzearen garrantzia nabarmendu. Horrela Abantotik lau kilometrora, lehengo industriako lur abandonatuak proposatu du parkea eraikitzeko leku egoki gisa.

Langabezia egoera estrukturala da Bilbotik mendebalderako herrietan. 80ko industri krisialditik %15etik gorako tasak betikotuta daude gurean. Hau da, ikasketa eta prestakuntza apalena dituen Bizkaiko eskualdea da, milaka pertsona bizi dira, emakumeak gehienak, lan bal-



Kimetz Arana
BARATZEZAINA

Azken 150 urtean kanpoko enpresa handien langile-morroi izan gara gurean. Ildo beretik dator EAJ-PNVren proposamena. Unibertsitateko ikerkuntza publikoa enpresa pribatuen zerbitzuko utziz

dintza ez onetan merkataritza-gunetako multinazionalen langile direnak. Horrela, jendeak begi onez hartzen du gaurko lan mundua hobetuko duen edozer proposamen. Hori delako egoeraren larrian, norberaren egunerokotasuneko estutasunen gakoa. Horregatik kezka ikusten dut

aldaketaren indarrek parkearen kokapenaz gain beste proposamenik plazaratu ez izana.

Azken 150 urtean kanpoko enpresa handien langile-morroi izan gara gurean. Ildo beretik dator PNVren proposamena. Unibertsitateko ikerkuntza publikoa enpresa pribatuen zerbitzuko utziz. Bertako ikertzaile eta teknikariak goraki estutu eta baliatuz, berriz ere bertokoen lanaz sortuko den aberastasuna eskualde kanpokoek eramateko.

Horren aurrean gure parke teknologikoak autonomo eta langile txikien beharrei erantzun behar lieke. Bere ardatzetan elikadura eta lurraldea barneratu, eskualdeko erresidentzia eta eskolentzako sukaldea proposatu. Kooperatibagintza zein merkataritza txikia indarberitu. Ikuspegi sozial, inklusibo eta generokoa landu eta horren inguruan jardun ekonomikoa sortu.

Gure eskualdeak badu muinean bihotz eraldatzailea, jendartea Bizkaiko beste eskualdeen bestelakoa da. Hemen PNVk irabazten du bera delako jendearentzako bizi proposamena gauzatzen duen bakarra. Has gaitetzen pentsamenduak zorrozten, ahal ditugun bezala gauzaten. Noizbait morrontzatik kanpo, bihotz eraldatzaile ezkertiarak gailen daitezen berriz gure udaletan ere. ■



MOYUA
HILETA ZERBITZUAK
Zure momentu zailetarako

Tel.: 943783447 - 617442466
mmoyua@telefonica.net
Otadui Gotzaina kalea, 27 - Oñati

EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOA MASTERRA

UPV/EHU DONOSTIA

PLAZA LIBREAK DITUGU

www.gezki.eus

UPV/EHUko Giza eta Zuzenbide Kooperatiboen Institutua
Instituto de Derecho Cooperativo y Economía Social de la UPV/EHU
GEZKI



TRADEBI
TRANSLATION

tradebi@tradebi.com

Migrazioak eta garapena?

Win-win eszenatokia posible ote?



Gorka Moreno
Márquez

IKUSPEGI – EUSKAL
IMMIGRAZIOAREN
BEHATOKIKO
ZUZENDARIA

Azken aste hauetan, berriz ere, migrazioei loturiko gaiek indarra hartu dute agenda politiko europarrean. Hartu behar diren neurrien artean migrazio guneak diren lurraldeen garapena bultzatu behar dela entzun da behin baino gehiagotan. Horrela, fluxuak baretzeko –baina ez hori bakarrik– migratzaileek beraiek garapen hori bultzatu dezaketela azpimarratzen da. Bitxia bada ere, diskurtso hori migrazioen inguruko eztabaidan kokatzen diren muturretan entzun dezakegu. Frantziako Fronte Nazionalak erabili du migrazio fluxuak eteteko argudioarekin, baina sarritan garapenerako elkarkidetzan lan egiten duten erakundeek ere erabiltzen dute. Pentsa daitekeen moduan oso interes eta helburu ezberdinekin.

Idea horren atzean dagoen premisa honako hau da –gutxienez ikuspegi aurrerakoien baitan–: migrazioek garapena sortzen dute helmugako gizartean, baina jatorriko gizartean ere sortu dezake, bi guneen arteko elkarkidetzaz sustatuz. Nolabait ere, jatorriko zein helmugako gizarteak biak garaile –win win eszenatokia– agertuko litzateke.

Benetan posible al da ekuazio bertutetsu hori lortzea? Nik arazo handiak ikusten ditut. Aurreko ikuspegiaren aldekoek planteatzen duten argudioetako bat da migrazioen ekarpen ezberdinek, “erremes”-ek nagusiki, jatorriko lurraldearen garapena bultzatu dezaketela. Hau eman badaiteke

ere, ez da automatikoa eta testuinguruak erabat baldintzatzen du “erremes”-en erabilera zein arrakasta. Lurralde batean benetako barne garapena eman ahal izateko, benetako garapenerako politikak aurrera eramane behar dira. Garapenaren erronka migratzaileengan jartzea gehiegizkoa da eta porrotera eramango gaitu ezinbestean.

Era berean, ezin dugu ahaztu jatorriko eta helmugako gizartearen artean sortzen diren harremanak erabat asimetrikoak direla, migrazioen bidez askotan jatorriko lurraldearen populazio aktiboaren gehiegizko murrizketa ematen da eta honek ondorio kaltegarriak ditu garapenerako. Baina ez hori bakarrik, nahiz eta migratzaileen ekarpena jatorrian positiboa izan, askoz ere onuragarriagoa da helmugako gizartean, beraz asimetria da nagusi eta izenburuaren jokoarekin jarraituz, harreman bertutetsua ematekotan, win win harremanaren arabera izango litzateke, non batzuk irabazle ateratzen diren, baina besteak askoz ere “irabazleagoak”...

Laburbilduz, desirak eta borondate ona ezin dira errealitatearekin nahastu. Migrazio fluxuek nazioarte mailako sistema ekonomiko globalizatua ere badira, eta ezin dugu ahaztu bertan desberdintasunak eta desorekak nagusi direla. Hori kontuan hartzen ez badugu zaila izango da migrazio eta garapenaren inguruko eztabaidaren baitan probetxuzko emaitzarik lortzea. ■

Gol mundiala



Edu Zelaieta Anta
IDAZLEA

Bukatu da, ederra kostata hori bai, munduko futbol txapelketa. Gauzak zer diren, baina, munduko txapelketaren ondotik ikusi dut nik gol mundial bat, telefono konpainia baten kaleko iragarki batean. Jokalaririk edota belarrik ez bazegoen ere, marketinaren gol bikaina iruditu zait, erretorika saltzaileak maite dituen letra handitan, gazteak erakartzeko asmoz: “Gu gara beti konektatuta egoten direnak”.

Konpainiak “eskaintzen” duen produktua gehiago saldu nahian, identitate ezaugarri batera jo du errukigabe; areago, identitate ezaugarria sortu du. Ez duzu zertaz lotsaturik: gaztea bazara normala

da etengabeko konexioa nahi izatea, baita gurasoei eskatzea ere. Belaunaldi kontua da. Izan ere, gu, zuek ez bezala, beti egoten gara konektatuta. Uler-tu behar duzu, aita, gauzak aldatu egin dira eta.

Helduengandik –zaharregandik, gurasoengandik– bereizteko jokaldi ederra da, unean uneko belaunaldien arteko arrakala maisuki baliatuz. Ahalduntzeko bidean daude, beraz, beti konektatuta egoten diren horiek. Harro ager daitezke “direna”-z.

Munduko txapelketa bukatuta, berandu bide da VAR eskatzeko. Gol mundiala eginga du selekzio guztietan jokatzen duen marketinak. Beste bat. ■

Lorategi birtualak

Txakurrak jabearen antza izaten du. Lorategiak ere bai. Batek atzeko patio batean, zementu artean, pintura poteak, baldeak, tinak asto-kakaz bete ditu eta kalabaza, tomate, kaputxinak, kolore askotariko loreak nahasian landatu ditu. Alboko patiotik bereizten duen hesiaren beste aldean, terraza minimalista batean, etzaulki bat, liburu bat mahaitxo gainean. Auzokoak zeramikazko lorontzi erraldoi batean sartu du, pintatu egin duela dirudi, kaktus erraldoi bat. Besoak bihurrituta ditu landareak, norbaitek bihurritu izan balizkio bezala. Lehenengo lorezainak ez daki zer egin bere bizitzarekin, lanbide berri bat probatzen ari da, gauza asko daki egiten, baina uste du ez duela ezertarako balio. Besteak Daimler edo Mercedensentzako *event-design*, ekitaldien diseinua, egiten du.

Nire ingurukoek dakite izan nintza-keen lanbide posibleen gaiarekin burua hautsi beharrean ibili naizela. Eta horretan nenbilela, dena txarto ateratzen zelako sentsazioarekin, kalabazin uzta ugariak salbatu ninduela. Nik leihoan landatutako zerbaite fruituak ematen!

Lorategi batek ondo egoten lagundu ahal digu. Ezer gertatuko ez balitz bezala. Baina gure inguruko hormetatik kanpo, infernua dago.

Duela 20 urte baino gehiago irakurri nuen Antonio Galaren zutabe bat: *Jardín mental*. Ikusten duzuenek, ez dut ahaztu. Denok dugu lorategi bat, zioen. Hari esker izan nuen nire lehen lorategia: buruan. Lorategi basa irudikatu nuen, hezigabea, hezea, aihen-belar orraztu gabeak, limoiak, eguzki-loreak eta muxuz betetako gerezi beltzak adarretatik zintzilik. Lorategi bizia eta fantastikoa. Pentsatu nuen halako lorategiak beharrezkoak zirela buru barruan. Kanpoko mundua jazan ezina, itogarria denean, non babestu izateko.

Baina Galaren jardín mentalak kontrakoak ziren: errealtatea, basatia,



Irati Elorrieta

IDAZLEA



Antton Olariaga

kanpoan kokatzen zuen eta lorategiko hormen barruan, naturaren kontrakoa, artifizialtasun domestikatua.

Eskapismorako leku bat nahi nuen nik. Fikzio bat buruan. Baina eskapismoak adiera gehiago ditu. Trumpek zoro-zoroan egiten du: hormez inguraturik, eta gera daitezela kanpoan bai migratzaileak, bai klima aldaketak. Mundutik at gotortu nahi dute Trumpek- eta. Jatorrizko Eden batean.

Tomate artean eserita daudenen mahaian nago. Kaktusa begi-bistan. Nirea ez den baina inbidiatzen dudana lorategian. Eta migrazioa sartu da elkarrizketan, nola ez. Elkarrizketetan sartzea lortzen du. *Abstumpfung* itzultzen saiatu gara: *L'hébetude* aterata da. Euskarazkoa nahiko ona da, prozesua erakusten du: *sorgortzea*. Gaur-gaurkoz denok entzun dugu migrazioek klima aldaketekin lotura dutela. Gero eta lur zati gutxiago dela bizigarria. Baina gradu pare bat gehiago jasan ahalko ditugula pentsatzen dugu, inork ez dakielako zer egin intelektuallak desagertu direnean. Eta mahaian eserita dagoen gizonetako bati buruz bere emazteak behin eta berriro esan du, Jochen, akademikoa bera... Etxera joan aurretik galdetu dut, azkenean, zein alorretan den akademikoa. Soziologiatik datorrela esan du, baina hortik urruntzen ari dela. Zerbaite konkretuarekin irabazten duela orain dirua: IT-alorrean, informazioaren teknologiek. Soziologia ez da ezer. Populazioak aukera du espezializazio handiko teknika batzuetan trebatzeko, edo laster robotek ordezkatuko dituzten lanbideak ikasteko.

Lorategiak ere algoritmoen arabera haziko diren pentsatu dudanean, duela hilabete adokinen arteko zuloren batetik irten zen mitxoleta gorria agertu zait buruan. Txunditu egin ninduen. Nondik irten zen? ■

Amul been nit ku leegalul

Atera
aldarria
kalera
euskaraz
eta wolofez!

inor
ez
da
ilegala

Kamiseta
bakoitzeko 2 euro
Mbolo proiektura
bideratuko dira.

Bilboko migratzaileak
martxan jartzen
ari diren garbiketa
kooperatiba da Mbolo.

Erosi ARGIAren Azokan

azoka.argia.eus | azoka@argia.eus | ☎ 943 371 545

15€



“Euskal Herriko atari guztietan egiten du lan esklaboren batek, eta ez zaigu inporta”. Hala dio Silvia Carrizok. Malen Etxea elkartearen eskubideak bermatzea du helburu elkarteak. Maiz hitz egiten da etxeko lanetan eta zaintzan lan egiten duten emakumeen lan baldintza txarrez, baina ez dira asko Carrizoren gisan aho bilorik gabe hitz egiten dutenak: “Emakume atzeritarrak menpekotasun eta esklabotza egoeran behar ditugu, Euskal Herriko gure zaintza sareak hornitzeko”.



Malen Aldalur Azpillaga

@malenaldalur

ARGAZKIA: DANI BLANCO

ETXEKO LANGILEAK

XXI. mendeko esklabotza





Bizkaiko Etxeko Langileen Elkartearen (ELE) estatistiken arabera, lana egiten duten etxeetan bizi diren emakume atzeritar gehienek 60 ordutik gora egiten dute lan astean eta hamar ordu baino gutxiago hartzen dute atsedean. Soldatak dagozkienak baino txikiagoak dira, ia kasu guztietan. Izan ere, kontuan izanda etxe barruko langileen %71,56k 60 ordutik gora egiten dutela lan astean, soldata, gutxienez, 1.267,46 eurokoa behar luke izan eta %82,11k hortik behera irabazten du.

Erreportaje honetarako Euskal Herrian etxeko langile diharduten bi emakume atzeritar elkarrizketatu ditugu, Gloria Martínez da bata, Honduraskoa, eta Natalia Castro bestea, Nikaraguakoa. Asmatutako izen-abizenak dira biak, haien intimitatea babeste aldera, ez dute benetako izen-abizenak azaltzerik nahi izan. Egunean bi orduko atsedena edukitzen du Martínezek, eta larunbatetan baino ez du hartzen atsedean Castrok, bi orduz.

Arrakalarik gabeko zurrunbiloan dauka zaintza eta etxeko lanetan 24 orduz lanean ari direnak, emakume migratzailen eskubideen alde lan egiten duen Bidez Bide elkarteko Katia Reimberg eta Soraya Ronquilloren ustez: “Ezin dira lan sektore horretatik irten gure gizarteak hor behar dituelako eta sistema honen arkitekturak hori ahalbidetzen duelako”. Azaldu dute zailtasun handiak dituztela jatorrizko herrialdeetako ikasketak homologatzeko, eta beraz, zaintzan egin behar izaten dutela lan: “Hego Amerikako emakumeak dira zaintza lanetan gehien aritzen direnak; gaztelaniaz hitz egiten dute, goxoak izateko fama daukate, eta gainera, katolikoak dira. Perfektua da; dena bat dator”.

Hala ari dira Martínez eta Castro. Urte mordoa daramatzate dagoeneko gure zaharrak zaintzen, gaur egun kontratuarekin egiten dute lan biek baina bidea ez da erraza izan. Jatorrizko herrialdean merkataritza aditua zen bata eta irakaslea eta soziologoa bestea: “Euskal Herrira etorri ginenean bagenekien ez genuela zaintza lanetan aritzea beste aukerarik edukiko”.

Gure gizarte egiturak emakume horiek neskametzat egoeran edukitzea behar duela uste du Ronquillok: “Horregatik onartzen dituzte gobernuek abusu horiek guztiak eta emakume horiekiko konplizitatea eta ardura guztio-

na da”. Uste du beste aldera begiratzeak neskametzaren egitura zikliko bat sortzen duela. “Jendeak uste du emakume horien bizitza eta denboraren gaineko botere guztia duela, eta emakume atzeritar horiek neskametzat egoeran daudela ohartzen ez garen arte ezingo dugu estatu demokratiko bat sortu”.

Arazoari alternatibak aurkitzeko sektorea balioan jartzea ezinbestekoa dela uste dute Bidez Bide elkarteko kideek: “Ospitaleetan, esaterako, 24 orduko zaintza behar duen jendea dago, baina behar hori bermatzeko zortzi orduko txandetan egiten du lan jendeak. Etxeetan lan egiten dutenekin ere hala behar luke”. Haien lana ez dela balioan jartzen uste du Martínezek ere: “Urte mordoa daramatzat familia berberarekin, nire lana egiten ahalik eta ondoen ahalegintzen naiz eta iruditzen zait ez dutela egiten dudana balioan jartzen”. Martínezek aurten aldarrikatu ditu lehenengoz dagozkion oporrak eta hartzen ez zituen jaiegunak kobratzen ere oraintxe hasi da: “Hasieran beldur handia izaten duzu dagozkizun eskubideak eskatzeko, bota egin zaitzakitelako eta paperik gabe dagoen jendea hartu, izan ere, egoera horretan zaudenean edozein lan kontratu onartzen duzu”. Martínezek gogoratzen du lehen aldiz zaintza lanetan hasi zenean kontratatzaileek gauzak apuntatzen zituztela eta gehiago kontrolatzen zutela, lapurreta egin zezakeelakoan edo: “Orain ezagutzen naute eta badakite emakume ona naizela”. Hala ere, faltan botatzen du bere lana baloratzea: “Ez dut asko eskatzen, nire eskubideak errespetatzea baino ez”.

» NATALIA CASTRO, ETXEO LANGILEA:

“Baserriko ganbaran bizi naiz, txabola moduko bat da. Aurreko batean, edari pixka bat jausi zitzaidan lurrera eta nagusien gelako sabaia pasa zuen. Itzeleko errieta egin zidaten”

» SORAYA RONQUILLO, BIDEZ BIDE ELKARTEA:

“Jendeak uste du emakume horien bizitza eta denboraren gaineko botere guztia duela, eta emakume atzeritar horiek neskametzat egoeran daudela ohartzen ez garen arte ezingo dugu estatu demokratiko bat sortu”

Egunean bi orduz soilik hartzen du atsedean Martínezek eta horrek asko zailtzen dio harreman sareak sortzea: “Bi orduan ez dit ezertarako denborarik ematen. Nire ahizpak Donostian bizi dira eta haiek ikustea ere ezinezkoa zait”.

Castrok baserri batean egiten du lan, bi gizonezko zaintzen. Hori hitzartu zuten bere lan baldintzetan baina familiaren eta beraren arteko botere harremanak tarteko, zaintza lanez gain, egunero baserrian bizi den jende guztiarentzako janaria egin eta jasotzera behartzen dutela dio: “Oso garai txarrak pasatzen ari naiz, oso bakarrik sentitzen naiz”. 2007. urtetik bizi da Castro Euskal Herrian eta lehenago inoiz halako esperientziarik ez duela eduki dio: “Urteak daramatzat etxe barruko lanean, astean bi ordu soilik atsedean hartzen eta oso gaixo zailak zaintzen, baina inoiz ez dut hain gaizki pasa”. Baztertua sentitzen da etxean: “Denek euskaraz hitz egiten dute euren artean, noski ulertzen dut hala egitea, eta ni ere ahalegintzen naiz ulertzen, baina nire euskara maila oraindik ez da oso ona”. Gaineratu du inorekin ezin duela elkarrizketa bat izan eta edozergatik haserretzen zaizkiola nagusiak: “Baserriko ganbaran bizi naiz, txabola moduko bat da. Aurreko batean, edari pixka bat jausi zitzaidan lurrera eta nagusien gelako sabaia pasa zuen. Itzeleko errieta egin zidaten”. Lanez aldatu nahi du Castrok, baina astean bi orduz baino ez duenez hartzen atsedean, zaila zaio beste zerbaite aurkitzea: “Gainera, nire herrialdean lagun askok behar dute nire soldata bizirauteko, ez da hain erraza”.



Esklabotzaren ondorena

Neokolonialismo modernoa da XXI. mendean daukaguna Carrizoren ustez. Ronquillo ere bat dator horretan: “Neskametzaren inguruko begirada koloniala daukagu oraindik”. Botere harremanak nabarmenak direla dio. Horren adibide gisa, Martíñezek kontatu du ez diotela bere izenez deitzen, “neska” deitzen diote. Carrizok argi du Europako erakundeek oraindik bere errailetan dituztela kolonialismoa, kapitalismoa eta arrazismoa, eta gauza bera gertatzen dela Euskal Herriko erakundeetan ere, nahiz eta ez garen bakarrak: “Badira herrialde gehiago zaintza eta etxeko lanetan emakume esklaboak dituztenak: Italia, Filipinak, Saudi Arabia, Portugal maila txikiagoan, eta Hego Amerikan ere bai klase altuetan”. Ronquillok ere neokolonialismo kutsua hartzen dio

Etxe barruko langileen %71,56k 60 orduetik gora egiten du lan astean. Ohikoena da asteko zazpi egunetan etxeko lanetan edo zaintzan aritzea. Ezkerrean, Ecuador Etxeak ateratako argazkian etxeko langile migratzaileak lan baldintzez protestan. Eskuinean, Malen Etxeako kideek afixean diote gauez atsedena hartzeko eta norbere logela izateko eskubidea dutela.

gaur egungo egoerari: “Urtetako menpekotasunaren begirada koloniala dago. Gure herrialdeetan Espainiaren konkistaren garaitik ezagutzen dugu neskametz eta oraindik erraiak hor daude”. Hego Amerikatik Europara etortzen dira neskame eta europarren begietara balio gutxiagoko pertsonak dira: “Ez da kasualitatea batzuek uniformeak eramatea edo kontratatzaileek langileei euren izenez ez deitzea”.

» **SILVIA CARRIZO, MALEN ETXEA:**

“Hego Amerikatik Europara etortzen dira neskame eta europarren begietara balio gutxiagoko pertsonak dira. Ez da kasualitatea batzuek uniformeak eramatea edo kontratatzaileek langileei euren izenez ez deitzea”

» **KATIA REIMBERG, BIDEZ BIDE ELKARTEA:**

“Ezin dira lan sektore horretatik irten gure gizarteak hor behar dituelako eta sistema honen arkitekturak hori ahalbidetzen duelako”

“XXI. mendeko etxe barruko langileen beharra esklabotza da”, hala dio Ronquillok. “Hori baieztatzean batzuek esaten dute ezin dela esklabotza izan ordaindu egiten zaielako. Ados, orduan neskametz da, Espainiako eta Euskal Herriko emakumeek orain dela mende erdi baino gehiago bizi izan zuten neskametzaren modukoa”. Bidez Bide elkarteak dokumentala egin zuen gaur egun etxeko langile diren eta garai batean neskame izan zirenen testigantzak bilduz, eta antzekotasun ugari aurkitu zituzten: “Garai batean asko baserrietatik hirietara joan ziren neskame. Emakume horiek oso baldintza txarrak zituzten, 24 orduz egiten zuten lan eta askotan barre egiten zieten, adibidez, gaztelaniaz ez zekitelako”. Gaineratu dute, antzeko zerbait gertatzen zela, adibidez, Extremaduratik hona etorritakoekin, baina kasu horietan barre egiteko arrazoia euskaraz ez jakitea edo euren jatorria zela. Orain emakume atzerriarrak garai batean neskame izandakoak zaintzen ari dira, 24 orduz: “Orain dela gutxi dokumentalaren emanaldia egin genuen zaharren egoitza batean eta hango emakumeek behin eta berriaz esaten zuten beraiek okerrago egon zirela”.

Reimbergek gogorarazi du hemen go emakumeek erruz zaindu dituztela etxeakoak: “Ezkontzen ez bazinen gurasoak zaintzea egokitzen zitzaizun. Orain emakumeak lan esparrura sartu dira eta beraiek zaintzen zituzten familiako kideak orain emakume atzerriarrek zaintzen dituzte. Bertako emakumeak gaizki sentitzen dira etxeakoak ezin dituztelako zaindu eta emakume

atzeritarrek euren familiak zaintzeari uzten diote beste batzuenak zaintzeko, eta horregatik, beraiek ere gaizki sentitzen dira”.

Aukerak bai, interesik ez

Esklabotza edo neskametza egoeratik irteteko alternatibak egon badaudela uste dute Bidez Bide elkarteko kideek: “Dirua badago, borondate politikoa eta gizartearen konpromisoa falta dira”. Eusko Jaurlaritza sektorea erregularizatu nahian dabil, hau da, “etxeko langileen baldintzak hobetu eta lan mota hori serioago hartu nahian”. Lanbideari balioa eman nahian langileak formaztea derrigortu nahi du eta ikastaroak egin beharko dituzte. Mendekotasun Legearen ondorena da neurria, 2008an onartu zutena. Lege horren arabera, zaintzaileari gutxieneko formakuntza ziurtatzea eskatzen zaio. Ronquillok eta Carrizok gogor kritikatu dute neurria: “Egun osoa lanean ari direnek ez dute denborarik formakuntza egiteko eta formakuntzarik egin ezin dutenak are egoera hauskorragoan geratuko dira”. Gogor borrokatu dute Malen Etxeako kideek etxeko langileek formakuntza egin behar izatearen aurka, eta badirudi, momentuz, ez dela beharrezkoa izango: “Asko kosta zaigu ulertaraztea zein den langileon egoera eta zergatik ezin duten formakuntza egin”. Hala ere, legeak hainbat salbuespen aurreikusten ditu formakuntza ez egiteko: 55 urtetik gora dituztenak eta gaitasun agiria eskatzeko beste urteko esperientzia daukatenak. Litekeena da 50 urtetik gorakoak ere talde horretan sartzea.

Martínezek aipatu du ezusteko ederra hartu zuela formakuntza egin behar zuela esan ziotenean: “Hala ere, familiak erraztasunak eman nahi zizkidan ikasketak egiteko, nik formakuntza egin da haien diru-laguntzak justifikatzea errazagoa delako”. Ronquillok ere hori gogorarazi du: “Formakuntza egitearen arrazoia ez da eskubideak bermatzea, familiek diru-laguntzak jaso ahal izateko ziurtagiriak lortzea baizik”. Hala ere, azkenean ez dute halakorik egin behar izango, haien esperientzia formakuntzarekin parekatuko dute. Espainiako Estatuko legeekin ere borroka bat baino gehiago dituzte. Alderdi Popularrak, azken orduan, etxeko langileen sistema bereziaren “normalizazioa” egiteko prozesua 2024ra arte atzeratzeko zuzenke-



Argazkia 1955ekoa da, Kutxa Fototekak eskura jarritakoa, Paco Mari argazkilariarena.

Artxiboko informazioaren arabera erdiko emakumea Joxepa da, etxeko langile erretiratua. Alboan ditu Lastagarai Usandizaga etxeko zerbitzariak. Alegia, bi neskame-belaunaldi. Hara paradoxa, gaur egun ere etxeetan bi neskame-belaunaldik topo egin dutela diote etxeko langileen eskubideak defendatzen dituztenek: garai bateko neskameak zahartu dira eta emakume migratzaileak dituzte etxean haiek zaintzen. Zaharrek goizetik gauerako lan gogorra dute gogoan, eta orain etxeetan ari diren emakume atzeritarrek esklabo egoeran lanean ari direla salatzen dute.

» Gloria Martínez
etxeko langileak
aurten aldarrikatu ditu
lehenengoz dagozkion
oporrak eta hartzen
ez zituen jaiegunak
kobratzen ere
oraintxe hasi da

ta sartzea lortu zuen. Prozesua 2012ko urtarilaren 2an hasi zen eta erregimen orokorreko kotizazio baseak eta etxeko lanen arlokoak parekatzea zuen helburu nagusi. Aldaketok ez direla politikariaren interesekoak uste du Reimbergék. Oso kritiko hitz egin du Carrizok ere: “Eusko Jaurlaritzak, Espainiako Estatuak egiten duen bezala, esklabo armada bere menara jartzen du”.

Baina zer egin dezake Eusko Jaurlaritzak egoera hobetzeko? Carrizok uste du aukera mordoa dagoela. Hala ere, garbi du ardura osoa ez dela erakundeena: “Zaintzarekiko konpromisoa komunitarioa behar dugu”. Carrizok azpimarratu du Euskal Herrian zaintza-krisi sakoia ez badaukagu, neurri handi batean emakume atzeritarrek egiten duten lanagatik dela: “Nola liteke 30 urteko biloba bere amonarekin gau bat pasatzeko prest ez egotea? Hori da hemen gertatzen ari dena”. Martínezek ere uste du hemen gutxi zaintzen dugula elkar: “Niri ordaintzen didate zaintzeko eta seme-alabek eta bilobek nire esku uzten dute haren zaintza guzti-guztia”.

Denok behar dugu zaintza gure bizitzako aro guztietan Carrizoren hitzetan: “Amonak ziur fardelak behin baino gehiagotan aldatu dizkiola eta orain 20, 25 edo 30 urteko gaztea ez dago gau bat bera ere amona edo aitona zaintzen geratzeko prest”. Horrek eragina duela uste du Carrizok: “Zaintza lanez gain, gertuko maitasuna jasotzea ere beharrezkoa da”. ■

Pitiusetako sugandila

Ibizan uso, euskal kostaldean otso

1990eko hamarkadan behatu zuten lehen aldiz Pitiusetako sugandila Gaztelugatxen, Bermeon. Gizakiak ekarri zuen Ibizatik eta euskal kostaldeko gunere berezi horretan askatu. Denbora gutxian eremuaren jabe egin da eta bertako sugandila "etxetik" bota du. Pitiusa uharteetan "uso" dena "otso" bihurtu da gurean.



TESTUA ETA ARGAZKIAK:
Iñaki Sanz-Azkue

Gaztelugatxekoa gutxi ez, eta 2005ean Donostian aurkitu genuen, Urgullen. Alarma gorria piztu zen ikertzaileen artean. Ez zen gutxiagorako. Neurriak hartu diren arren, bertan ere antzeko zerbait gertatzeko arriskua dago. Non eta Urgulleko sugandila famatuaren bizitokian...

Gizakiarentzat erakargarri egiten duten ezaugarri guztiak ditu Pitiusetako sugandilak (*Podarcis pityusensis*): kolore berde argiko bizkarralde, gorputz sendoa, eta, noizbehinka, urdin koloreko ezkatak aldeetan. Euskal kostaldean aurki daitezkeen hiru sugandila espezieekin alderatuz estetikoki oso deigarria da; terrarium zaleentzat, erakargarria.



Narrasti hau lehen aldiz Euskal Herri-
ra ekarri zuen pertsonak zein intentzio-
rekin egin zuen ez dakigu, baina utzi,
leku hobean –edo okerragoan, ikuspun-
tuaren arabera– ezin zuen utzi. Gaztelu-
gatxeko Biotopo Babestuan aurkitu du
sugandilak bere Ibiza.

Segituan moldatu zen ingurunera.
Hain ondo moldatu gainera, ezen bertan
bizi zen horma-sugandila ere (*Podarcis
muralis*) bota egin baitzuen. Inbasioa
gauzatua dago jada. Kostako zaio horma-
sugandilari bere jatorriko lekua berres-
kuratzen. Gaztelugatxeko eskaileretan
Pitiusetako sugandila da orain turistei
harrera egiten diena.

Sugandila lorejalea

Arrazoi asko daude Ibizatik ekarri eta
askatua izan den sugandilak bertakoa
zergatik bidali duen azaltzeko. Batetik,
handiagoa, sendoagoa da; eta, bestetik,
bertakoak ez bezala, Pitiusetako sugan-
dilak nektarra, loreak eta fruituak jaten
ditu, intsektuez gain. Leku gutxian auke-
ra gehiago du bazka lortzeko eta beraz,
bizirauteko.

Klima izan zitekeen etsai nagusieta-
koa animalia kanpotarrarentzat, edota
harrapakari handien presentzia. Gazte-
lugatxen, ordea, itsasoaren gertutasu-
nak neguak epeltzen ditu, eta kareha-
rrizko harkaitz eta sasitza eguterak
bizitoki ederra dira berarentzat. Euri-
-tasa altuagoetara eta eguzki-tasa ba-
xuagoetara moldatu da espeziea.

Etsai askorik ere ez du inguruan, he-
gazti batzuk salbu. Azken finean, Gaz-
telugatxe irla txiki bat da, eta Pitiusetako
sugandilaren etsai eta konpetentzia
nagusiak liratekeenak –suge leuna edo
schreiber muskerra kasu– irlatik kan-
po daude, kostaldean. Gaztelugatxeko
zubi txikiraino zabaltzen da Pitiusetako
sugandilaren erreinu txikia. Zubiaren
bestaldean zain du horma-sugandila, be-
rriro ere irlara sartzeko momentuaren
zain balego bezala: sugandilen *Tronu de-
ma*-k ez du etenik. Baina, dudarik gabe,
Ibizatik etorritako sugandila kostara ez
zabaltzea litzateke berririk onena.

Donostiako Urgullen ere lekutu da

Gipuzkoako hiriburuak ere badu bere
irlatxoa, Santa Klara. Bai eta garai ba-
tean irla izan zena ere: Urgull mendia.
Bi horietan dauden sugandilak lupaz
begiratu izan dituzte urteetan zehar
adituek. Izan ere bertako sugandilak,



sugandila arrea (*Podarcis liolepis*) ize-
nekoak, ezberdinak dira ingurukoeki-
ko: handiagok, sendoagok, ilunagok
kasu batzuetan... eta berezitasun horiek
bultzatu zuten 1980ko hamarkadan az-
piespezie ezberdintzat hartzera: *Podar-
cis hispanica sebastiani* jarri zioten ize-
na. Azken urteetan egindako ikerketek
azpiespeziea dela dudak jarri badute
ere, inork ez du ukatzen Urgulleko su-
gandilak bereziak direnik.

Lasai bizi ziren duela gutxi arte.
2005ean, baina, konpetentzia handia
jarri zion gizakiak. Pitiusetako sugandi-
la ar bat lehendabizikoz Urgullen ikusi
zutenetik, pixkanaka, sarturiko espeziea
zabaltzen joan da, nahiz eta ez den Gaz-
telugatxen adina ugartu.

Urgullekoak Gaztelugatxetik ala Ibi-
zatik datozen jakitea oso zaila da. Bai-
na espezie kanpotar bat eremu batean
sartzen den unean, eta, kasu honetan
bezala, espezie deigarria denean, berau
inguruko lekuetara zabaltzeko arris-
kua handitu egiten da. Gero eta gehia-
go mantendu espeziea gune batean, or-
duan eta aukera gehiago daude gizakiak
inguruko beste eremu batera erama-
teko. Espezie kanpotar inbaditzaileak
detektatzean azkar erreakzionatzea ko-
meni da, arazoa ez handitzeko.

Urgullek eta batez ere Gaztelugatxek
azken urteetan jasan duten turismoa-

Goiko argazkian ikus dezakegu
Pitiusetako sugandilaren neurria.

Eskuineko argazkian,
itsas mihiluaren ("*Crithmum maritimum*")
gainean, Gaztelugatxen.

ren igoerak, noski, ez du batere lagun-
tzen. Gero eta jende gehiago inguruan,
orduan eta arrisku handiagoa berau
beste tokietara zabaltzeko –nahita edo
nahi gabe–.

Ibizan uso...

Pitiusa irletan dauden narrasti horren
azpiespezie gehienak mehatxatuta dau-
de. Gurean espezie kanpotar inbaditzaile-
lea dena, bere jatorriko eremuan espe-
zie babestua da eta funtzio ekologiko
garrantzitsua betetzen du: landareen
haziak zabaltzen ditu.

Espezie kanpotar guztiak ez dira in-
baditzaileak, baina dagoeneko Ibizatik
ekarritako sugandila honek baldintza
guztiak bete ditu hala izendatua izate-
ko. Azkar moldatu da gure ingurunera,
ugaltu egiten da, eta bertako espeziea
bere lekutik botatzen ari da. Kasu hone-
tan hori da egundaino ikusi dena, baina
ez dago garbi etorkizunean espeziea gu-
rean sartu izanak eraginik izango ote

duen inguruko ekosisteman. Landareen haziak barreiatzeko duen gaitasunak landare espezie jakin batzuei egin diezaieke mesede, beste batzuen kalterako. Askok izan daitezke ikertzaileen begiei ihes egiten dieten ondorio txikiak.

Eta orain zer?

Pitiusetako sugandila Gaztelugatxen sartu zenean, ez zen inongo erreakziorik izan, eta denbora gutxian, irla konkistatu zuen. Urgullekoa jakin bezain laster, ordea, Aranzadi Zientzia Elkar-teak espeziea sartua dagoen bi lekuetan jarri zituen martxan hura kontrolatzeko proiektuak.

Aranzadiko Herpetologia Sailak Bermeoko Udala, Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin Gaztelugatxe inguruan urteak daramatzate bertako populazioa hobeto ezagutzeko ikerketak burutzen, eta, era berean, sugandilaren populazioa

kontrolatzeko lanak egin eta proiektua ezagutarazten. 2008-2012 urteen artean 825 ale harrapatu zituzten. 2017an soilik, 726. Garbi dute desagerraraztea ezinezkoa dela. Luzerako edukiko dugu Pitiusetako sugandila.

Egun, esperimentaziorako eta ikerketarako bide ezberdinak irekiak dituzte, gertaturikoari buruzko datuak bildu, eta ahal den heinean, neurriak hartzeko. 2008an hasitako lanak aurrera doaz, eta Espainiako Doñanako Estazio Biologikoen laguntza ere izan dute, berau inbasio biologikoei buruzko ikerketarako adibide ona baita.

Urgullen, aurkitu bezain laster hasi ziren kontrol lanak egiten Aranzadiko Herpetologia Saileko kideak. Bertako sugandila arrearen egoerak, gainera, horretara bultzatu zituen, eta segituan hasi ziren neurriak hartzen Donostiako Udalarekin batera. Ale kopurua asko handitu ez den arren, egun, Pitiusetako

narrastiaren populazioak bertan darrai, baita Urgulleko bertako sugandilarenak ere. Etorkizunak esango du zer pasako den. Ugal garaian behintzat, ikusi izan dira Ibizako sugandila handiak bertakoei eraso egiten, eta gune onenetatik botatzen. Handienaren legea...

Espezie kanpotarrak saltzeko merkatuak, espezie basatien etxekotzeak eta horiek edozein lekutan askatzeak kalte ekologiko eta ekonomiko larriak sortzake ingurune batean. Onar dezagun: Pitiusetako sugandilak badu bera baino "otsoa" goa denik inguruan: gizakia. Azken finean, gu gara espezieen kontrol gabeko mugimenduaren arduradunak. Sugandilari buruzko ikerketak, jarraipenak eta kontrol-lanak ez dira nahikoa izango dibulgazio egokirik egiten ez bada. Pitiusetako sugandilaren kasua gertuko eredua da, eta, era berean, oso baliagarria zer egin behar ez dugun jakiteko. Ez da gutxi. ■



Laura Perez

“78ko Erregimenaren beste makulu bat izaten amai dezake Podemosek”



Hiru urte pasatu dira Laura Perezi (Iruñea, 1980) Iruñeko Calisto tabernan elkarriketa egin genionetik. Orduan ez zen artean Nafarroako Podemos-Ahal Duguko idazkari nagusi, orain ere ez. Baina bi urtez izan da Nafarroako buru, iragan otsailean kanporatu zuten arte. Energia handiko emakumea da, zazpi parlamentariotik lau dira soka berekoak, gehiengo, baina alderdiarekiko lehiaren nekea antzematen zaio bere jardunean.



Xabier Letona

@xletona

ARGAZKIAK: JOSU SANTESTEBAN

Gauza asko gertatu zaizkizu azken urtebeteen. Nola sentitzen zara?

Oso hilabete gogorak izan dira eta ukitua iritsi naiz oporren atarira. Badut zer hausnartu eta pentsatu. Gertaeren abiadak sarri ez digu ondo pentsatzen uzten eta espero dut orain oporren lasaitasunean hori egin ahal izatea. Baikorra naiz eta espero dut gai izango garela aldaketarako beharrezkoa izan zen Ahal Duguk okupatu zuen espazio politikoa elkarrekin aurrera ateratzeko eta handitzeko, horretarako siglak edo alderdi-formulak gainditu behar badira ere.

Pasatu zara alderdiko idazkari nagusitik alderditik kanporatua izatera.

Idazkari nagusia nintzenean ez nuen sinetsi inoren gainetik nengoenik eta gero ni txikitza etorri direnean ez dut onartu izan haiek eraikitako errelatoa. Ni oso lasai nago nire kontzientziarekin, beti egin izan dut zegokidana eta, hainbatetan, gehiago ere bai.

Hasieratik Nafarroako iritziak Madrilgo Podemosekoen gainetik izan ziren. Madrilen ez zuten nahi hemen Podemos izenarekin aurkeztea, baina guk bai, eta gurea atera genuen. Hasiera batean nik ez nuen parlamentaria izan nahi, baina azkenean Madrilgo jokae- ra ikusirik, behartu nuen nire burua hor egotera, talde parlamentario sendo bat antolatzeke, behar izanez gero Madrilgo Podemos desobedituko zuena, honek EH Bildurekin ez egiteko itunik agintzen bazigun. Orain, bai Madrilen bai hemen PSN eta Geroa Baira gerturatzeko ari dira.

Hurrengo hauteskundeei begira ere bai?

Gure susmoa da Podemosek bultzatu nahi duela akordio berri bat PSNrekin eta Geroa Bairekin. Beti lor daitezke

akordioak, baina defendatzen dugun Ahal Duguk ez luke gobernu itunik egin- go PSNrekin. Eta hurrengo gobernu- a EAJk kontrolatzen duen –adibidez gil- tzarri den alor ekonomikotik– indar ba- ten esku izatea ere zalantzan jartzen dugu.

Geroa Baik ez du esaten publikoki, bai- na gehiengo berri hori nahi du. 2017ko aurrekontuetan oso argi ikusi genuen hori. Funtzionarioen aparteko lan-sa- ria onartu zenean, Geroa Baik nahi izan zuen bi zuzenkearen truke PSNren si- nadura ere akordio hartan sartzea, eta honek aurrekontuak onartzea. Guk ez genuen onartu.

Gobernuaren sostengatu dugun lau al- derdiok kontraesan asko irentsi behar izan ditugu. Desadostasunean sarri era- bili izan da xantaia –“aldaketa edo kao- sa”– Geroa Bairen ikuspuntua aurrera ateratzeko, beste hiru alderdiak kontra izanda ere; eta hori zalantzan jarri izan dugunok deserosoak izan gara. Politi- kan esan behar da noraino irits zaitez- keen, eta aurrerago egin ezin bada, azal- du behar da zergatik.

Madrilgo bultzada aipatzen duzu. Nola kokatzen da hor Nafarroako Ahal Duguko zuzendaritza berria?

Ez da Madril bakarrik, hemengoak ere buru-belarri ari dira saio horretan. Adi- bidez, Eduardo Santosek Nafarroako Legebiltzarreko eserlekua utzi zuen Madrilerako parlamentari joateko, bera hemen egoteko hautatua izan zenean. Hemengo komunitatearekin hartu zuen konpromisoa, baina Madrilerako joan zen. Hemen geratu behar zen. Hori guztia nik ezer jakin gabe egin zuten. Nik beti

» “Nafarroan eman zen aldaketan sakondu ahal izateko, fronte zabal bat beharko genuke, helburu programatikoetan oinarrituta, gure berezitasunak eta hemengo erabakitze-ko eskubidea errespetatuz”

defendatu izan dut Nafarroan prozesu konstituziogilea bultzatu behar dela eta horretarako oso gehiengo sozial handien aliantza behar dela, baina Madril-en, esaterako, beti egin izan diote uko EH Bildurekin akordioak egiteari. Nafarroako Ahal Duguren oinarriek, ordea, Geroa Bai-ri egiten zioten uko.

Legealdi honetan egindakoetatik, zu zerekin zaude gustura?

Batez ere guk bultzatutako lorpen ekonomikoekin nago gustura. Adibidez, Santander Bankuarekin Nafarroako Gobernuak zuen zorra berriz negoziatu zenean, altxor publikoak diru asko aurreztu zuen. Hasieran Ogasun sailburuak ez zuen negoziatu nahi, baina azkenean lortu genuen eta hamar milioi euro gutxiago ordaindu ziren. Zerga iruzurraren jarraipena egiteko diru gehiago gastatzea lortu dugu, baina horren ondorioz zortzi milioi euro ere berreskuratu dira.

Zor publikoaren auditoriaren gaian egindako lanaren ondorioz informazio kopuru handia eskuratu dugu eta ikusi dugu zor publikoaren 191 milioi euro bidegabeak direla. Bere garaian Nafarroako Gobernuko funtzionarioei lan sari gehigarria emateko gure presioa giltzarri izan zen. Hainbat zirrikitu izan dira, batez ere legealdiaren hasieran, presio ahalmen handiagoa genuenean. Gero, Ahal Duguko gure barne desadostasunek presio ahalmen hori nabarmen txikitu dute.

Zer da egia, zer gezurra alderdian egin dizkizuten akusazioetatik.

Podemoseko Berme batzordeak forma eta sakoneko akats asko ditu. Formazioak: nire aurkako auziak aurrera egin ahala akusazio mordoa gehitu dituzte, baina nire burua defendatzeko frogak aurkezteko aukerarik eman gabe. Nire duintasunarekin eta ohorearekin jolas-tu dute haien helburuak lortzeko eta alderdiko sektore bat alboratzeko.

Legebiltzarreko bozeramaile karguaren aldaketa ez onartzea, Legebiltzarreko hezkuntzako lan-batzordean zure alde egitea eta beste hainbat gauza leporatu dizkizute. Damutu zara egindako zerbaitekin edo gertatutakoa ikusita bestela egingo zenukeen orain?

Egindako guztia berriz ere egingo nukeen. Bozeramaile aldaketa eztabaidatu

nuen Legebiltzarreko araudiaren aurka egin zelako –bere lehendakaria buru gainera– eta gure talde parlamentarioari adierazpen askatasuna eta askatasun ideologikoa ukatu zitzaizkigulako. Beste gauza askorengatik ere zigortu naute, besteak beste, parlamentario gisa urriaren 1ean Kataluniako Erreferendumaren aldeko idazki bat sinatzeagatik edo zerga erreforma alderdiaren bizkar bideratzea leporatuta... jazarpena egin didate.

Gaitasun Pedagogikorako Agiriaren kurtsoa (CAP gaztelaniazko siglan) izan zen eztabaidatuenetakoa, zure onurarako baliatu zenuela leporatu zizuten.

Leporatu zidaten UPNrekin bat egitea. Hauek urtebeteko moratoria eskatzen zuten eta nik bikoa, eta unibertsitate publikoan behar beste plaza eskaintzea kurtso hau egin ahal izateko. Zergatik? Niri gertatutakoa ez gertatzeko, ni jandak CAP egiten ari bainintzen, baina 5.700 euro ordainduz. Hartutako erabakiek ez zidaten niri eragiten, baina bai zerrendetatik kanpo geratu ziren beste 2.400 irakasleri, eta horiei begira ari nintzen ni, ez delako justua baldintza horiek eskatzea eta dirutza horiek ordainaraztea.

Niri irekitako zigor espedientea zentzugabea eta erabat konplexua da, eta erakusten du denbora itzela erabili dutela frogen muntaia erraldoi bat erakitzen; nire burua defendatzeko frogak erakutsi ditudanean, aldiz, ez zaizkit kontuan hartu.

Azkenean *Patent Box* auziarengatik kanporatu ninduten. Geroa Baiko Manu Ayerdik azken orduko bi proposamen sartu nahi izan zizkigun *Patent Box* hauei buruz, enpresa handien mesederako zirenak. Ezetz esan genion Ahal Duguko talde ekonomikotik, gure hauteskunde programaren aurkakoak zirela; baina azken unean, Eduardo Santosek baiezkota eman zuen Geroa Bairekin bere kabuz egindako bileran. Osoko bilkuraren egunean, Eduardo Santosek eskatu zidan nik ere sinatzea zuzenketak horiek eta nik ezetz esan nuen. Azkenean Geroa Baik aurrera atera zituen zuzenketak, baina UPN, PP eta PSNren sostenguekin.

Iglesias-Montero eta beren txaleta izan da azken kapitulu korapilatsua Espainian. Iglesias-ek zioen Moncloara heldu-

» “Ahal Dugu indartsu eta batua giltzarri izan zen aldaketan, eta orain alderdiak sektore handi bat baztertu du. Nora joango gara gu? Zeini emango diogu botoa?”

» “Eduardo Santosek Nafarroako Legebiltzarreko eserlekua utzi zuen Madrilera parlamentari joateko, bera hemen egoteko hautatua izan zenean. Hori guztia nik ezer jakin gabe egin zuten”

» “Alderdi bakoitzak bere zilborrari bakarrik begiratzen badio, agian ezusteko bat hartuko dugu eta zenbakiek ez dute emango aldaketarekin jarraitzeko”

» “Nik beti defendatu izan dut Nafarroan prozesu konstituziogilea bultzatu behar dela eta horretarako oso gehiengo sozial handien aliantza behar dela”



ta ere, handik ateratzean Vallecaser itzuliko zela, eta gero ikusten duzu txaletaren auziarekin... Errealitatetik asko urrutiratu direla uste dut, besteak beste halako hipoteka batean sartuz, askatasun ekonomikoa oso garrantzitsua baita askatasun ideologikorako. Bera urrundu egin da berak eraldatu nahi duen mundu horretatik eta, beraz, gero oso zaila da mundu hori ulertzea eta ordezkatzeko. Politika gatazka da, eta botereari aurre egiten badiozu honek ere zure aurka egingo du. Pablok eta Irenek iparra galdu dute, baina larriena da beren kongruentzia eza alderdiko oinarrietara eramanez dutela, hauei xantaia eginez: “edo bozkatzeko nauzu edo banao”, “edo onartzen duzu egindakoa edo eskuin muturreko mediodiekin zaude”.

Oro har, nola jokatu du Nafarroako Gobernua akordio programatikoa betetzeko?

Egiturazko arazoetan gobernu honek ez du sakoneko aldaketarik egin eta, Ayer diren bidez, EAJk esparru ekonomikoa bere kontrolpean izan du. Hezkuntza kontzertatuarekiko harremana berdina mantendu da, azpiegitura politikak ere antzekoak izan dira eta Enpresa Publikoen Korporazioan ere berdintu aritu dira. Zerga politikan lortu ditugu aurrerapausoak ordainketa mailakatan, baina sozietate zergan ez, batez ere enpresa handietan; jarraitzen dugu biltzen bost aldiz gehiago pertsonen zergetatik enpresen zergetatik baino. Zor bidegabearen gaia ere ez dute ezer ukitu nahi izan. Zertarako balio du botere demokratikoa izateak gero ez bazara ausar-

tzen xantaia egiten dizuten botere ekonomikoa horiei aurre egiten?

Ia esaten ari zara ez dela aldaketarik egon, baina egon da, eta herritarrek argi antzeman dute.

Bai noski, egon da aldaketa. Aldaketa handiena izan da UPN gobernutik kanporatzea. Erakutsi dugu, halaber, desberdinen artean posible dela gobernu akordioetara iristea. Hemen hainbeste madarikatu izan den abertzaletasuna gobernuan izan daitekeela eta ez dela ezer gertatzen. Baina batzuek uste dugu askoz harago joan zitekeela eta batzuetan aldaketa lasaia aldaketa izoztu dezakeela. Orain Geroa Baik dio PSN integratu behar dela aldaketan, baina orain arte PSNk guztiz egiten du bat gaitz garrantzitsuenetan UPNrekin, izan alor identitarioan edo ekonomikoan.

Zuen liskarrak asko kezkatzen du aldetaren aldeko gizartea, indarrak oso parrakatuak izanik orain ea zer gertatuko den galdetzen da kalean.

Gure barne gatazka osoan horrek kezkatu nau bereziki. Ahal Dugu indartsu eta batua giltzarri izan zen aldaketan, eta orain alderdiak sektore handi bat baztertu du. Nora joango gara gu? Zeini emango diogu botoa?

Baduzue buruan alderdi berri bat sortzea?

Ez. Egungo zuzendaritzaren beste gezur bat da hori, gu kakazteko. Ahala Nafarroa-Orain Mugituz taldean Ahal Dugukoak direnak eta ez direnak bildu daitezke; hori zen hasieran Ahal Duguren funtzioa. Alderdi bat gehiago bilakatu da Podemos-Ahal Dugu: 78ko Erregimenari amaiera eman nahi zion, baina egun, haren beste makulu bat bilakatzeko arriskua du. Askok gara honen kontrakoak eta lehenago edo beranduago hasierako Podemos berrasmatu beharko da.

Baina ez zu, ez beste asko, ezin izango zarete Ahal Dugun aurkeztu.

Hala da bai. Ezker Batua, Batzarre eta Equorekin ari dira josten akordioa; oinarrietatik egindako hautagaitza bat baino, goitik behera egindako saioa. Nafarroan eman zen aldaketan sakondu ahal izateko, fronte zabal bat beharko genuke, helburu programatikotik oinarrituta, gure berezitasunak eta hemengo erabakitze eskubidea errespetatuz. ■

Aldibereko itzulpena

‘BELARRIPRESTAK’ AGERIAN GELDITU DIRA BERGARAN

Aldibereko itzulpenak egiteko tresneria dute Euskal Herriko hainbat udalek, Bergarakoak tarteko. Itzultzaile profesionalen beharrik gabe bilerak euskaraz egin ahal izatea bermatu du sistemak. Aranzadi Ikastolako guraso bileretan, hizkuntza gatazka-iturri izatetik, normaltasunera eramatea lortu du aldibereko itzulpenak.

**Igor Agirre**

@igoragirre

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Ikasturte hasiera gehienetan errepikatzen diren hitzorduak dira guraso-bilerak. Bergarako Aranzadi Ikastolan ere ohikoak dira gurasoekin informazioa partekatzeak batzarrak eta azalpenak emateko hizkuntza hautuak buruhauste bat baino gehiago eman die orain arte zentroko arduradunei. Bertako haurrek D ereduan ikasten dute eta gurasoen %80 dira euskaldunak.

2010. urtearen bueltan Euskararen Plan Estrategikoa egiten hasiak ziren Aranzadin. Ikastolako zuzendari Ane Barrusoren arabera, “plana egiterakoan hutsunea ikusi genuen guraso-bileretan. Euskaraz eta gaztelaniaz egiten genituen eta eduki bera lantzen genuen lehenengo euskaraz, eta erdaraz ondoren”. Bi hizkuntzetan egiteak hainbat kalte ekartzen zituela du gogoan Barrusok, besteak beste, bilerak aspergarriak izatea eta denboran oso luze joatea. Arazoari erremedioa jartzeko asmoz, galdetegi bat luzatu zieten gurasoei hiru aukerekin: bata, ordura arte bezala jarraitzea; bigarrena, bilerak euskaraz egitea eta euskarri informatikoak nahiz paperekoak gaztelaniaz izatea; eta azkena,

bi bilera paralelo egitea, bata euskaldunekin eta bestea ez-euskaldunekin.


Bigarren aukeraren alde egin zuen gurasoen gehiengoak, baina guraso erdaldunak erabakiarekin gustura ez, eta kontrako jarrera hartu zuten, bilere-tara azaltzeari utziz. “Euren hizkuntz eskubideetan erreparatu zuten guraso erdaldunek eta ikastolako bazkide ere badirenez, beren hizkuntza ere errespetatua izatea nahi zuten. Bazterkeria hitza erabiltzen zuten” azaldu du Barrusok. “Gure ikastetxeko komunitatea euskalduna dela esan genien eta bi hizkuntzetako eskubideak bermatzen genituela adierazi”. Guraso erdaldunen kexei erantzuna emateko, beste bide batzuk aurkitzen saiatu ziren eta aldibereko itzulpenaren aukera probatzearen alde egin zuen ikastolak.

Itzulpen zerbitzuaren beharra zutela azaltzeko harremanetan jarri ziren Aranzadi Ikastolakoak Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuarekin. Estepan Plazaola Udaleko euskara teknikariaren ustez begi onez ikusi zuten aldibereko itzulpenarena eta ideia lantzen hasi ziren: “Ikastolaz gain gainerako bileretarako ere erabilgarri izan zitekeela pentsatu genuen”. Hasiera hartan alokatu egiten zuten makina, baina azkenean, ematen zitzaion erabileraren maizta-

sunak ikusita, tresneria erostea erabaki zuen Udalak.

Aranzadi Ikastola da gaur egun itzul-penerako tresneria gehien erabiltzen duen elkarte Bergaran; lortu du ordura arte arrakala sortu zuena konpontzea: “Lehenengo proba ikastolako batzar nagusian egin genuen eta bilera hiru ordutako izan beharrean, ordubete inguruan amaitzea lortu genuen. Denek ikusi zituzten euren eskubideak bermatuta” azaldu du Ane Barrusok. Hurrengo pausoa guraso-bileretan sistema ezartzea izan zen eta gaur egun ere horrela egiten dute. Itzultzaile lana irakasle boluntarioen esku dago eta bilera aurretik edukia prestatua izateak lana dezente errazten duela dio ikastolako zuzendariak: “Lehen ere bilerak bi hizkuntzetan prestatzen genituen, ez da lan gehiago izan. Azalpenak euskaraz ematen ditugu eta itzultzea behar duenak aurikularretik entzuten du azalpena gaztelaniaz”.

Gurasoen batzarrez gain, beste pausoa ere emana du Bergarako Aranzadi Ikastolak eta dagoeneko bestelako hitzaldietara ere zabaldu du aldibereko itzulpen zerbitzua. Ikasturtean zehar gurasoentzat antolatzen dituzten hitzaldiak ere euskaraz egiten dituzte ikastetxean eta unean bertan itzultzen dituzte saioak irakasleek. “Aurretik gaiari bu-





“Nork behar ditu aurikularrak bilera gaztelaniaz jarraitzeko?” galdetu eta uste baino gutxiagok erantzuten du baietz, alegia, ez dute euskaraz hitz egiten baina ulertzen dute. Aurikularrak janzen dituzten askok bestalde, kentzeko joera hartu dute, konturatu direlako haiek uste zutena baino gehiago ulertzen dutela euskara.

ruzko hitz ohikoenak itzulita izaten ditugu. Egia da nahiko nekeza izaten dela lana, baina txukun samar ateratzen da” Barrusoren ustetan.

‘Belarriprestak’ azaleratu dira

Ikastolako guraso komunitateak pozik jaso zuen aldaketa Bergaran eta guraso erdaldunek ere eskertu dute zerbitzua. Estepan Plazaola euskara teknikariak azaldu duenez, “horri esker konturatu gara zenbat jendeak ulertzen duen euskara eta jende hori bera konturatu da

euskara ulertzeak baduela balioa”. Barrusoren esanetan ere ‘belarriprestak’ –Euskaraldian ‘belarriprest’ direnek ‘ahobiziei’ eskatuko diete haiei euskaraz egiteko, ulertzeko gai direlako– sortzea ahalbidetu du aldibereko itzulpena martxan jartzeak: “Guraso askok esan digute beraiengatik horrenbesteko lana ez hartzeko. Gehienek orain ez dituzte aurikularrak hartzen eta euskaraz ulertzen ahalegintzen dira, ulertzen ez duten momentuko kontu hori ondokoa-ri galdetuz. Batzuen aurrean aparatua hartu nahi ez izatearen ondorioz ‘belarriprest’ bilakatu dira hainbat guraso”.

Zerbitzua herritar guztien eskura

Beharrezko tresneria bereganatu zutenetik, herritarrek eskuragarri dute aldibereko itzulpena bermatzen duen sistema Bergarako Udalaren eskutik. Tresnak doan lagatzen ditu Udalak eta

aurretiaz eskaria bideratzea beharrezkoa izaten da horretarako. Itzultzaile lanak egingo dituen pertsona ere sistema behar duenak aurkitu behar du. Udaleko euskara teknikari Estepan Plazaolaren arabera sistema erabiltzeko nahikoa da oinarritzko ezagutza teknologikoak izatea eta lehenengo aldiko esperientzian laguntzeko, argibideen dokumentua ere prestatuta dute.

Horretaz gain, sistema erosteak Bergarako Udalera ere ekarri du onura. Udalak antolatzen dituen aurkezpenetan aldibereko itzulpena bermatzen du orain eta horretaz arduratzen dira Euskara Saileko teknikariak edo kasu batzuetan, alorreko udal teknikariak. Udalez gain, herriko beste hainbat elkarte ere erabiltzen dute zerbitzua eta ikasturte honetan bertan, esaterako, herriko beste bi ikastetxeek ere ekin diote aldibereko itzulpena bileretan eskaintzeari.

Ateak zabaltzen dituen teknologia, ate gehiagotara iristen

Bergarakoa baina, ez da adibide isolatua Euskal Herrian. Plazaolak berak ezagutzen ditu antzeko sistema eskuragarri duten zenbait udal: “Ordizian aspalditxotik dute, eta Eskoriatzan, Lasarte-Orian, Irunen eta Hernanin ere badute”. Bergarako euskara teknikariaren usteetan, Bergaran duten sistema ez da espresuki itzulpengintzarako egindako tresna, turismo gidariei ere erabiltzen omen dute. Hala ere, ez da aldibereko itzulpena bermatzeko sistema bakarra eta teknologia aurreratuz doan heinean, ekonomikoki eskuragarriagoak izan daitezkeen tresnak sortzen ari dira. Adibidez, Donostia 2016 Fundazioak eta Talaio Kooperatibak ‘Interprest’ izeneko plataforma garatu zuten duela urte pare bat. Interpresten bidez aldibereko itzulpenak egin daitezke *smartphoneak* erabiliz, itzultzailearen seinalearen artean eta entzulearen artean *modem* funtzioa duen tresna bat erabiliz. ■

BABESLEA: **LEZOKO UNIBERTSITATEKO UDALA**



EUSKARALDIA



**LEZOn
EUSKARALDIArekin
bat!**



Lezoko Unibertsitateko Udala



Okintza berri batek jo nau begian: gaitzak sortzen dituen bakterio bat erabiltzen dute ogiaren orantza sortzeko. Legamiak egiten duen lana bakterioak egiten du: ogi ore a harrotu. Bakterioa "*Clostridium perfringens*" da, eta guri gangrena eta janari-intoxikazioak sor diezazkiguke.

Alde guztietatik jatea



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

ARGAZKIA: KONTROLLWIKI.LIVSMEDELSVERKET.SE

Euskal Herrian nekazaritza etengabeko kolonizazioaren historia da. Toki guztietan bezala. Lehen lantzen ez zen lurra lugorritu; lehen ereiten ez zen uzta erein; lehen jaten ez zena gozatu. Dena beste nonbaitetik ekarria. Historia horietako asko idatzi dituzte nonahi laboreek; baita geurean ere.

Milaka urte dira laboreak ekarri zituztela-genituela. Beraiei txirikordatutako makina bat istorio izango da bazterretan, ez alferrik jendarte eredu baten oinarritzko elikaduraren ardatzetako bat dira, Mediterraneo aldetik etorritakoak. Oloa (*Avena sativa*), garagarra (*Hordeum distichon*), zekalea (*Secale cereale*) eta, batez ere, garia (*Triticum aestivum*) gure historiaren etorriaren lagun zaharrek ditugu.

Uztailak uzta dakar soroetatik etxera edo biltegiara. Horixe adierazten du gariaren izen zientifikoaren bigarrenak: *aestivum*, udan jasotzen dena. Urte guztian ogia egin ahal izateko labore alez betetzen dira ganbara, mandio eta silo. Ondoren etorri beharko dira errotariak eta okinak.

Okintza berri batek jo ninduen lehengo batean begian: gaitzak sortzen dituen bakterio bat erabiltzen dute ogiaren orantza sortzeko. Legamiak egiten duen lana bakterioak egiten du: ogi ore a harrotu. Bakterioa *Clostridium perfringens* da, eta guri gangrena eta janari-intoxikazioak sor diezazkiguke. Harrotzeko lan horretan sulfuroa sortzen du, arrautza ustel usaina deitzen dena, zenbaitek hanka

usaina deitzen badio ere; Ipar Ameriketara, ogi hau egiten dutenek "gazta usain fin askoa" duela esaten dute. Probatu nahi duenak, doala AEBetako Pennsylvaniako Mount Morrisko Main Streeteko 115.eko Rising Creek Bakery And Cafera.

Egunen batean hanka usaineko ogi hori agian gure kulturako parte garrantzitsua izango da. Laboreak landu eta janez pixka bat mediterraneotu ginen bezala eta artoa, babarruna, piperrak, kuiak eta abar landuz eta janez zertxobait amerikartu ginen bezala.

Kultura, izan ere, ez al da ba, neurri batean, kanpokoa aukeratu eta geurera egokitzea? Eskerrak erresistentzia ere baden, hautatze horretan bazter uzten den horrekikoa, alegia. ■

“Geltokin elikagaiak tokikoak, sasoikoak eta ekologikoak izanen dira”



Garazi Zabaleta

@tirikittrann

ARGAZKIA: NNPEK



Iruñeko autobus geltoki zaharrak itxura berria hartu du. Kanpotik baino, aldaketa barrutik are handiagoa izan da: garai bateko leihatila zaharren artean Geltoki proiektua jarri dute martxan, hiriburuan ekonomia solidarioaren, elikadura burujabetzaren eta kultura alternatiboaren alde egin nahi duen egitasmoa. Ekainaren 9an ireki zizkieten hiritarrei gune berriko ateak proiektuaren bultzatzaileek.

Elkarlanetik sortu eta aurrera eramandako proiektua

Urte hasieran esleitu zion Iruñeko Udalak geltoki zaharraren espazioa egitasmoaren bultzatzaile den Geltoki Iruña Elkarteari. REAS Nafarroako Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sareak, NNPEK Nafarroako Nekazaritzako Pro-

dukzio Ekologikoaren Kontseiluak, Nafarroako EHNE sindikatuak, Emausko Trapulariek eta Nafarroako Artisauen Elkartek osatzen dute Geltoki Iruña. Hamar langileko kooperatiba sortu dute gune berria kudeatzeko.

Ekainaren bukaeran amaitu den diru-bilketa kanpainaren bidez beharrezko azpiegiturak lortzeko babesak jaso du proiektuak. “Kontzientziak piztu eta norberaren kontsumo ohituren gainean hausnarketa bultzatu nahi dugu: erostera goazena benetan beharrezko dugun, zein jatorri duen, nork eta nola egina den...”, azaldu zuten bultzatzaileek kanpainaren aurkezpenean.

Bertakoa eta ekologikoa

Hainbat gunetan banatuak egonen dira

Geltokiren 900 metro koadroak. Leiha-tilen gunean, esaterako, tokiko produktu ekologikoak eta jasagarriak egonen dira erakusgai eta salgai. “Hemen erraza izanen da erosketak saskia betetzea eta ez da ezertan pentsatu beharko: elikagaiak tokikoak, ekologikoak eta sasoikoak izanen dira guztiak”, zioen Edorta Lezaun NNPEKko lehendakariak. Kafetegian ere Nafarroako eta garaiko barazki ekologikoak eskainiko dituzte, 0 Kilometro filosofian oinarrituta eta eskaintza jasagarri eta osasuntsua eginez.

Helduentzako nahiz haurrentzako irakurketa puntuak, liburutegia, ludoteka tematikoak... Aukera zabala egonen da Geltoki elkargunean. Erosketak egiteko, aisialdirako, baina batez ere, kontzientziaziorako. ■

Basherri

GIPUZKOAKO KONTSUMO TALDE ETA KOOPERATIBAK

info@basherrisarea.eus · www.basherrisarea.eus

HEMENGOA ETA EKOLOGIKOA, GOZATU GUREAZ!



azoka

NOLA SALDU ZURE GAUZAK AZOKAN: Sartu argia.eus/azoka helbidean, eta klikatu "Saldu" atala. Bost minutuan jar dezakegu edozer salgai Interneten, euskal herritar denen eskura.

ARGIA JENDEARENTZAT MUSUTRUK: ARGIAko kideei zer bait eman nahi izanez gero, badugu aukera. Ostegunero 10:00etan izaten da txupinazoa: ARGIA Jendeak musutruk hartu ditzakegun gaiak publiko egiten diren unea.

www.argia.eus/azoka • [@argiaAzoka](https://twitter.com/argiaAzoka)

Era guztietako **salgaiak** aukeran: ikus-entzunezkoak, mahai-jolasak, argitalpenak, laminak eta mapak, gorputzarentzakoak, bitxiak, eskulangintza, jantziak...

87
gai
salgai

KIMUTX LIBURUA + CD-A

Euskal kulturen oinarritutako kantuak, ipuinak eta irudiak biltzen ditu Kimutxek. Sormenerako ateak irekitzen ditu, heldu eta umeek elkarrekin landu ahalko dute hizkuntza, musika, kontakizuna eta eskuzko trebeziak (irudiak moztu eta marrazteko aukera ematen du), euskarri honetatik abiatuta.

Ezaugarriak:

- 0-12 urteko umeentzako zuzendua.
- Ipuinez osatutako 62 orri, koloretan.
- Moztu eta margotzeko zazpi orri, marrazkiz beteak.
- 11 kantuz osatutako CDa.



18 euro

Uztailaren 26an, 10:00etan...

ARGIA Jendearentzat musutruk jarriko ditugu argia.eus/azoka webgunean. Ez da zozketa, azkarren ibiltzen denak eramango ditu!

34
gai
musutruk



Bizi Baratzea lamina 17 eta 18

Mattinek eta Joseba Larratek eginiko lamina originalak. Neurriak: 35 x 50 zm.



Bilboko Kafe Antzokian bazkaria

Bi lagunentzako otordua.



Ainhua Bereziartua ARGIAko langileei egin duen diseinu proiektua aurkezten. Langileak zur eta lur geratu ziren, ARGIAren izaerari eta barne bizitzari neurri egindako proposamena zela iritzita.

Espazioaren diseinuak baloreetan badu eragina



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Sarri hitz egin izan dugu orri honetan ARGIAren baloreez. Hitz egin dugu, baita ere, Lasarte-Oriako erredakzio, publizitate, administrazio sailen antolaketaz eta berrantolaketaz; denak elkartu eta elkarrekin lan egiteko txokoa osatzeaz. Baina bigarren hau behintzat gehiago izan da intuiziotik, tripetatik egindako zerbait. Etxe honetan ez baita espazio-diseinatzailearik sartu sekula. Orain arte.

Argiako lan espazioaren barne diseinu proiektua egin berri du Ainhua Bereziartuak. Kunsthal goi mailako diseinu zentroan ikasketak burutu berri ditu, eta azken lan modura aurkeztu du proiektua. Aurretik Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan lizentziatua da eta hainbat sektoretako enpresetan aholkularitza estrategiko lanetan –pertsonek antolamendua, organizazioen eraldaketak...– ibilitakoa. Orain diseinuaren munduan murgilduta, bi diziplinak uztartuko dituen proiektua egitea izan du helburu: “ARGIAren baloreak eta antolamendu eredua espazioaren diseinura eramatea erronka polita irudituzitzaian”, adierazi digu.

Bi fasetan oinarritu da proiektua. Lehena, teorikoa: estrategia eta diseinuaren arteko erlazioa, bulegoen historia azken 100 urteetan eta hauen erlazioa testuinguru sozioekonomikoarekin, lan espazio birtualak, bulego eredu berriak... Bigarrena, praktikoa: lan espazioa diseinatzea.

Honela esan digu: “Espazioaren berdiseinu batek lan taldeak berez transmititzen duen giroa, gertuko tratua eta profesionaltasuna potentziatu ditzakeela ikusi dut eta ARGIA proiektuaren etengabeko hobekuntzan, espazioaren diseinu berri bat beste bultzada bat gehiago litzatekeela iruditzen zait. Espazioen diseinuak pertsonen energia eta emozioetan duen eraginean sinesten dut, eta diseinu berriak badagoena indartu eta aukera berriak ekarriko dituela uste dut”.

Bereziartuak bere ikasketak burutze-ko proiektua egiteko baliatu du ARGIA, eta ARGIAri oso baliagarri egiten zaio jende profesionalak bere arlotik proiektu komunikatiboa aztertzea, beste enfoke batetik begiratzea, perspektiba aldatzea eta proposamenak egitea. ■



Uda honetako kamiseta bihurtzera bidean



Nagore Vega

@muxkill

Nik badut nirea eta zuk?



Birasuegi #Koop #ESE

@birasuegi

Nik ere gaur jantzita



iametza

@iametzai

Guk ere bat egin dugu ARGIA Mbolo Moye Doole elkartearekin batera egiten ari den kanpaina ederrarekin. Inor ez da ilegalala, amul been nit ku leegalul.

KOMA BATEN INDARRA



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Alemania, 1870. Erich von Wolf kimikariak hosto berdeko barazkiak aztertu zituen, bakoitzak zenbat burdina zeukan ondorioztatzeko. Ikerketaren emaitzak koaderno batean idatzi zituen eta zerrenda horretan espinakak garbi nabarmendu ziren: 100 gramo espinakatan 35 miligramo burdina zeuden; burdin iturri oparotzat ditugun dilistetan, aldiz, 8 miligramo inguruan dabil. Egin kontu!

1929ko hasieran, AEBetan, Elzie Segar marrazkilariak sortutako Popeye pertsonaiaren komiki tira argitaratu zen lehenengoz. Komikiak *Thimble Theater* izena zeukan orduan. Jatorrian marinelak Bernice izeneko oiloaren burua igurtzita lortzen zuen aparteko indarra. Baina 1932an ezohiko energia iturria aldatu zuen Segarrek: handik aurrera espinakak janda lortuko zuen super boterea.

1929ko kraxak piztutako krisialdiaren ondorioz, 1930eko hamarkadan haurren anemia asko hazten ari zen; Popeye eta bere lagunak abenturak haurren elikadura hobetzeko kanpaina ezin hobeak ziren. Gerora bere neskalaguna izango zen Olive Oyl pertsonaiak oliba olio kontsumitzearen aldeko kanpaina sotila izan zitekeen, baina ez zuen eragin handirik izan. Popeyeren espinaka latek ordean, bai. Barazki horren ekoizpenak eta salmentak gora egin

zuen nabarmen; 2006ko ikerketa batek baieztatu zuenez, Popeyeren marrazki bizidunak ikusi ondoren, haurrek askoz errazago jaten dituzte espinakak.

1937an, beste kimikari alemaniar batek, Werner Schuphanek, berriro aztertu zituen barazkien osagaiak, eta espinaken burdin kantitatea 100 gramoko 3,5 miligramo ingurukoa zela ondorioztatu zuen. Von Wolfek lortutako emaitzaren hamarrena zen gutxi gorabehera eta horregatik ondorioztatu zuen beste kimikariari koma bat jartzeari ahaztu zitzaioela edota datu horien transkripzio edo kopiaren batean galduko zuela funtsezko koma hori. Baina ordurako datu okerrak egiak baino indar handiagoa zuen.

1981ean Terence J. Hamblin immunohematologo ingelesak artikulua argitaratu zuen *British Medical Journal* aldizkarian, espinakek duten burdinaren mitoa behin betiko hautsi nahian. Burdin kantitatea pentsatutakoa baino hamar aldiz txikiagoa zela azpimarratzeaz gain, giza gorputzarentzat burdina hori xurgatzea oso zaila dela azaldu zuen: berez, hemoglobinarik gabeko produktuen burdina xurgatzea ez da erraza eta, gainera, espinakek dituzten oxalato gatzek, kaltzioak, magnesioak eta zuntzak are gaitzagoa egiten dute lan hori. Espinakek orotara duten burdinaren %2-7



Popeye pertsonaia 1929an sortu zuten eta 1932az geroztik espinakek ematen diote aparteko indarra.

soilik xurgatzen dugu. “Popeyek burdina nahi bazuen, hobe zukeen espinaka potoen latorria mastekatu izan balu” idatzi zuen Hamblinek.

Ez zuen bere helburua lortu eta egun, oraindik, espinakak burdin iturri nagusitzat jotzen dituzte askok. Eskerrak, burdin ekarpenik egin ez arren, beste propietate onuragarri asko dituztela. ■



POLYMORPH GAMES

Erdi Aroa euskaraz ere eraiki daiteke

Quebecoko Polymorph Games bideojoko enpresak *Foundation* jokoa kalera-tuko du udazkenean. Joko berria Erdi Aroko herrixkak eraikitzean datza eta ezaugarri berezia du: eraikuntza organikoa deritzon kontzeptua. Eraikinak koadrikula batean txukun doitu beharrean, jokalariek eraikuntza eremua aurrez marraztu behar du eta, ondoren,

herritarrek “naturaliki” erabakiko dute beren etxea non eraiki nahi duten. Beste ezaugarri bat da Quebecoko estudioak jokoa itzultzeko aukera eman duela, eta, gurean, Game Erauntsia bideo jokoaren euskal komunitateak euskaratu du. Jokatzaren hasteko hilabete batzuk falta dira oraindik, baina euskara dagoeneko txertatu dute bertsio ofizialean. ■

Juana Bixenta, ez etsi!

Jon Garaño eta Aitor Arregiren 2017ko *Handia* filmak XIX. mende erditsuko Gipuzkoa sakoneko –halakorik baldin bada– giroa hedatu zigun pantailetan: etxetiarren pobrezia larria, jabeen opulantzia, bakoitza berea ateratzen saiatzen zela, batzuek anaia baten akromegalia txanpon trukean maneiatzen zutela eta besteek, Juana Bixenta Olabe distiratsuaren pare, finean Nagusi Jaunarekin ezkontzea lortzen zuketela!



Itxaro Borda

IRUDIA: AINARA AZPIAZU "AXPI"

Indalezio Bizkarrondo "Bilintx" erraldoiaren bertsoek, goseak larrutzen zuen euskal baserritar jendartearen muineraino eramaten gaituzte. Hogeita bat koplatan sortzen digu egoera bixxia: ez dakigu zertan dabilen Nagusi Jauna, etxetiarren saria ezin ordainduz datorren Juana Bixenta alaba gazte ederraren aurrean. Sozietate kristauak baimentzen zuen *happy end* batekin bukatzen da sesioa, Nagusi Jauna eta Juana Bixenta elkarrekin ezkonduko baitira eta handik hilabete gutxira haur bat munduratuko dute.



*Dama gaztiak, ez egon lotan,
begira zaitezte ispilu hontan:
gustatuta bertute ederra
andretzat hartu bere maizterra
du nagusiak:
horla irabaztera graziak
saia zaitezte beste guziak.*

Aholku ederra ematen du Bilintxek eta funtsean, kontatzen diguna lurra lur denetik antza, funtzionatzen duen zer-bait da. Honakoa, emakumeek nahitara ala nahi gabe zurubi sozialean gora hupatzeko erabiltzen duten baliabideetako bat dugu, Hollywooden edo lan-tokietan ere erabiltzen dena, teoriarik emazteen gain uzten delarik sedukzioarako joera. *Promotion canapé* deitzen zaio eta duela gutxi arte jendarteak onartzen zuen. Alderantziz balitz alta? Gizonezkoek balute beraien botere eta arindarra balantzan jartzen, emakumearen egikera bideratzeko? #NiEre edo #SalatuZureUrdea traolek hitza askatu dute hondar hilabeteotan eta aukeraz aprobetxatuko gara Juana Bixenta Olaberi jarri zaion alegiazko anbiziotsu maskorra kentzeko.

Bertsolari donostiarraren koplak Juana Bixenta eta Nagusi Jaunaren arteko elkarriketa mamitsuz osatuak dira, une batez Nagusi Jaunaren mutila edo morroia ere sartzen dela solasaldian, Juana Bixenta onik eraman zuela gurasoen etxera ziurtatzeko.

*Aingeru hari lagundu eta
horra, jauna, egin oster a buelta.
Bidean bai, beldurtxo zen bera
baina ailegatuta etxera
kontentu zegon.
Orain kezketan ez du zer egon
ohera joan ta pasatu gau on.*

Bilintxek, nagusi eta subalternoen artean gertaturiko bortxaketa –sinboliko ala erreala?– baten lekukotasuna ekartzen digula suma dezakegu. Ez da testuan biolentzia horren aztarnarik ageri, baina gure idazle erromantikoak, bakarra agian euskal literaturan, agituaren hegi zorrotz eta mingarriak leundu eta urtuko zituen bere diskurtso lainoan. Hasieratik beretik ikusten da Nagusi Jauna fabore baten eske datorren neska amainatzeko zereginetan galtzen:

INDALEZIO BIZKARRONDO UREÑA “BILINTX”

Karrika bat dauka Donostiako Parte Zaharrean, 1831 eta 1876 artean bertan bizitza osoa eraman zuenak. Berrogeita bost urtetan hil zen hegoaldean foruak deuseztatu ziren egunean. Sei hilabete lehenago bere etxeko leihotik sartu karlisten granada batek, zartatzerakoan, zangoak moztu zizkion. Rosalia de Castrorenkin batera Galiziako literatura berri-tuko zuen Manuel Curro Enríquez kazetariak Bilintxen heriotzaz artikulua famatua izkiriatu zuen 1876ko urtarrilaren 21ean Madrilgo egunkari batean. Erran behar da Antzoki Zaharraren zaindaria liberala zela eta hirugarren karlistadan Donostiako liberalen laugarren batailoian sutsuki borrokatu zela!

Ez zuen zorte handirik ukan Bilintxek. Gaztetan eskaileretan erori zen eta aurpegia arras markestua gelditu zitzaion. Txori harrapari moko batekin ibiltzeaz gain, beranduago zezen batek –*Pasaia*ko herritik ihes joandako hark?– kolpatu zuen soka-muturrean jolasten ari zela eta ondorioz maingu edo herrenka aitzinatzen zen. Ez zitekeen gozo Do-

nostiako kale hertsu eta ilunpean Bilintx bezalako izaki baten gurutzatzea.

Baina bere bertsoetan nabaritzen zitzaion funtsezko poztasunari esker agian, ezkondu zen eta hiru haur ukan zituen. Ez zion zorigaitzaz bizi-modua trabatu, baina hori bai, malenkonia sakona, umore eta ironia gaziarekin uztartzen jarraitu zuen hiltzeraino. Ez zuen gaiztakeriarik ordea, ez mendekatzeko xederik ere. Bere jenio handitik datozkigu hainbat kanta ezagun hala nola *Behin batean Loiolan*, *Dama gazte polit bat*, *Ume eder bat ikusi nuen*, *Kontxesirentzat*, *Loreak udan ihintza bezala* edo dantzatzeko melodia airosa destinoaren pesimismoarekin josten duen *Triste bizi naiz eta*:

*Triste bizi naiz eta
hilko banintz hobe
Badaukat bihotzean
hainbeste naigabe
Maite bat maitatzen dut
baina haren jabe
Sekula izateko
esperantzik gabe...*

– *Nagusi Jauna, hauxe da lana,
amak bidaltzen nau berorregana.
– Ai, bidaliko bazinduke maiz!
Zu ikusita kontsolatzen naiz.
Sinista zazu
oso zoraturikan naukazu!
Horren polita nola zera zu?*

Irudikatu behar da horrelako konplimentua entzuten duen emakumearen erreakzioa. Ezer erakutsi gabe askotan barne-barnetik desarmatua bezala sentitzen da, ez dakiela nola eman lehen dantza urratsa. Bat batean, Juana Bixentaren bihotzean bi borondate kuzkatzen dira: amarena eta nagusi jaunarena. Galdera oraino zera liteke: amak zergatik bidaltzen duen bere alaba nagusi jaunari etxe-saria ordaintzeko epea atzeratzeko mesedea eskatzera, zergatik ez doa bera edo bere senarra? Amak ere inplizituki badakike alabaren edertasun

fisikoak nagusia beratuko duela. Ama horren itxura arketipikoa dela erran genezake: amak ezkonduak, amak salduak, amak igorriak franko baitira euskal kantetan.

– *Amak esan dit, etxeko errenta
pagatzeko dirurik ez zuen-ta,
ia egingo dion mesere,
hilabetearen gehienaz ere,
itxoitea:
Bada zierto dala ematea
Pasa baino lehen hilabetea.*

– *Logratutzea, erraz halare,
nahiz hori ta beste zernahi gauza're,
seguru dela esan amari,
zu baldin bazatoz mandatari;
dudarik gabe
neure borondatearen jabe
zu zara Juana Bixenta Olabe.*

– Beraz bertatik noan etxera
poz handi bat amari ematera;
orain ariyo, nagusi jauna,
presaka joan bihat amagana.

– Ez zoazela!

Portatu zaite nik nahi bezela,
gaur etxera joan ez zaitezela!

Nagusi Jaunak Juana Bixenta presionatzen du *portatu zaite nik nahi bezela* gomendatzen diolarik. Bortxa edo gorenetik apalenera harilkatu indarkeria susmoa hemen errotzen da. Hain gozoa eta hitzetan zabala zirudien gizona une honetan zakar azaltzen da, bere *kutizia* neskaren begitartera aurtikitzen duela! Baina, astuna den arren, jendetasuna zaintzen badaki: Juana Bixentaren etxea urrun dago, zer egin behar du gaeuz, beldurtua, *peligro* haundiz bertsoak dioenez. Bere ontasunak ere azaltzen dizkio: Malagatik etorri ardoa, afari opa-

roak, hamasei duroko urre fina... eta berriz berotzen da, Juana Bixentaren ohorea zalantzan jartzeraino:

– Ezetz etsia egon liteke
ni hemen gelditu ezin ninteke;
amak espero nau gauerako
eta hark espero nauelako
joan behar dut nik;
alaba ikusi bagetandik
amak izango ez luke onik...

...

– Gainera berriz, Juana Bixenta,
utziko dizuet etxeko errenta
kito zor didazuten guzia
kunplitzen banazu kutizia.

– Lotsa gogorra!
Sufritzen dago gaur nire honra
penaz malkuak darizkit horra!

Azkenean, bere burua defendatzeko Juana Bixentak, abila baita, Nagusi Jaunaren afruntuak ofentsatzen duela agertzen dio, salbatzearen biktimizatzen du bere burua. Etxeratuko da morroiaren konpainian eta handik hamar egunetara, amaren baimenarekin, bi gazteak ezkonduko dira elizan eta *jendea franko bazuten jiran*. Zoriontsu daude eta *espero dute haurtxo bat aurki*. Bilintxen kontseilu ironikoa orduan dator: *graziak irabaztera saia zaitezte beste guziak*.

Xabier Letek (1945-2010) osorik abestu eta grabatu zuen *Juana Bixenta Olabe* bertso sailean alegrantzia eta tragedia susmatuarekin jostatzen da. Galdera geldituko da airean: erromanizismoak eta ironia samurrak ez ote dute klase sozial ezberdinetako gizon eta neska gaztearen arteko bortxazko harremana ezkututzen? ■



Oier Guillan

“Arrakasta jendearekin komunikazioa lortzea da, horretarako egiten dugu lan”

Donostiako Larratxo auzoa, 1975. Oreretako Mikelazulo kultur elkarteko eta Metrokoadroka kolektiboko kidea. Kazetari, idazle eta antzerkigilea.

Zauri Bolodia saioa (Txalaparta) eskuetan mintzatu gara, antzerkiaz bereziki: “Guk egiten dugun teatro motak bestelako irakurketa eskaintzen duelakoan nago. Liburuko Jota lagunak dioenez, ‘edonork dauka oholtza gainean aritzeko eskubidea’. Areago, gure antzerkia amateurra edo profesionala dikotomiaz harago doa”, erran digu solaskideak.



Mikel Asurmendi

@masurmendi

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Idoia Beratarbidek ilustratu du *Zauri Bolodia* liburua. Gustuko lana, ezta?

Bai, noski. Ilustrazioak aipatu gabe geratzen dira sarritan eta irudiak liburua ulertzeko ezinbestekoak dira. Nik beste testu bat bailitzan hartzen ditut. Kasu honetan, pertsonaiari buruzko proposamena da. Gure kolektiboaren karteletan, arropetan eta eszenografian, Idoiak estetika eta estilo bat markatzen du.

Krisian dagoen aktore baten egunerokoaz idatzi duzu. Deskribatu duzun pertsona-pertsonaia-aktorearen nortasuna izugarria iruditut zait. Nola eusten dio eguneroko aldarteari aktoreak?

Aktore baten aldartea ez da edozein pertsonak egunero bizi duen aldartetik ezberdintzen. Egia da, teatroan aritzeak jendez inguraturik egotera eramaten zaitu eta hori exigentea da, baina helduleku bat da aldi berean. Hau da, laguntzen dizu bakarrik ez sentitzen, baita ez zarela munduko erdigunea ohartarazi ere. Antzerkilaria –idazlea ez bezala– konturatzen da ez dagoela bakarrik,

erronkak eta arazoak ez direla bereak bakarrik. Hori guretzat, kontsolamendu handia izaten da.

Antzerkilariak “mundua aldatzeko grina” behar al du? Edo ez da hainbesterako?

Grina hori jarrera moduko bat da, baina gauza bat da mundua aldatzeko nahia –batzuetan gaztetako bulkada izan ohi dena– eta beste bat, heldutasunera iritsita, mundua aldatzeko sentsazio hori bizi nahi izatea. Adin batean, sortzaileok sentsazio horrekin bizitzeko asmoz egiten dugu lan, ez mundua aldatzeko grinaz. Bestela, oso irrealista eta frustagarria litzateke. Haatik, sentsazio horrekin bizitzea funtsezkoa da, zure izate eta grina osoarekin murgildu behar duzu lanean. Agian, bizi duzuna ezdeusa da, baina ezinbestekoa da. Grina lanerako motorra da. Mundua aldatzeko asmoa erreala ez bada ere, balio digu bulkada gisa. “Zuen lanak barrua mugitu dit” edo “agerralditik beste aldarate batez atera naiz”, entzutea oso ederra da.

Liburua irakurria izan da. Sarri elkarrizketatua izan zara. Liburuaren “arrastaka” eta “arrakasta” hitzek sona hartu dute.

“Arrakasta” eta “arrastaka” esaera Ander Lipusena da. Eneko Sagardoyri [aktorea] entzun nion, Lipusi entzun ziola esaten, eta gustatu zitzaidan. Alegia, batzuetan arrakasta lortzen dugu eta bestetuetan arrastaka gabiltza. *Mr. Señora* liburuak ere harrera ona izan zuen, baina oraingoan inoiz baino elkarrizketa gehiago eskatu didate, eta horrek harridura sortu dit. Pertsona lotsatia naiz eta ez dut beste munduko ezer esateko, beste edonork beste edozein lanbidetan nik bezainbeste edo gehiago esateko dauka, zintzoki esaten dizut...

Autoreak liburua defendatu behar du hala ere.

Hori da. Nire lehenengo gogoeta hauxe da: “Esan behar dudana liburuan dago, zertarako atera behar dut berriz ere komunikabideetan gehiago esatera?”. Baina liburua ez da zurea bakarrik: editorea, ilustratzailea, liburuaren proze-



suan iritzia eman dizun jendearena ere bada. Beraz, liburua defendatzeko ardurara performace eta jolas txiki bat bezala hartu dut. Nire pertsonaia jokatu dut liburua defendatzen. Rol hori onartu

dudan heinean lasaiago sentitu naiz eta elkarrizketetan liburua idazten jarraitu izan banu bezala jokatu dut. Liburua idazten jarraitzeko gogoia eta guzti piztu zait. Antzerkian gure pertsonaia onar-

tzen dugun unetik, zintzo izateko modu bat topatzen dugu. Elkarrizketak horren segidako lana bezala hartu ditut.

Al Pacino aktoreak dio “ondo dago arrakasta, pena da famarekin nahastu ohi dela”. Hala diozu liburuan zuk ere.

Garai batean, taldekideoi arrakasta lortzeak konplexua sortzen zigun. Nahasmena sentitzen genuen gure lana publiko gero eta zabalagora iristen hasia zelako. “Arrakasta” lortu nahi izateak errudun sentiarazten gintuen. Aipu hori emanaldi baten ondorengo irakurri nuen agerkari batean, taberna bateko barra batean. Iltzatuta geratu zitzaidan. Askok lagundu zidan bizi genuen egoera ulertzen. Konturatu nintzen arrakasta behar dugula. Al Pacinoren esaldiak berretsi zigun: “Guk ere arrakasta nahi dugu, ahalik eta jende gehienarengana iristea nahi dugu”. Bestela zertarako ateratzen gara plazara? Jende askok bere “arrakasta”-ren bide posible bati trabak jartzen dizkio. Zergatik baina? Arrakasta jendearekin komunikazioa lortzea da, horretarako egiten dugu lan. Lana jende gutxiri iristea onartu behar dugu, baina xedea ez da hori. Askotan arrakasta eta jende aurrean dugun balizko fama nahasten ditugu. Arrakastaren inguruko barne borroka anitz sortu zaizkit aktore lanetan, autokritika egin beharra barne.

Zauri Bolodia-n “zure” zauriak agertu dituzu. Serio hartu behar al dugu sortu duzun pertsonaiaren mina? “Biktima” gisa agertzeko “arriskua” ere badago.

Beti dago biktismoan erortzeko arriskurik, autokonpasiorakoa ere bai, baina arrisku egoera horrek autokritikoa izaten laguntzen dizu. Esate baterako: eragile edo erakunde politiko bati ardurara eskatzen diogunean guk geurea ere hartu behar dugula ikasi dut. Batzuetan, kexaren munduan erortzen gara, eta hori ahazten dugu. Niri ere gertatu zait hori. Ikasbide bat da. Liburua amaituta, tonua ilun samarra ote zen pentsatu nuen, “kezka” sentitu nuen, umore gutxi sartu ote nuen beldur nintzen. Kexatiegia izango ote? Ordea, nire bilakaera azaldu nahi nuen heinean, beharrezkoa ikusi nuen horrela idaztea. Zorionez, kontatua interesgarria eta beharrezkoa dela adierazi didate gehienek. Liburua “masaje” moduko bat dela, zauritu deza-keela, baina mina kentzeko balio duela entzueak lasaitu nau.

Egoaren gaia jorratu duzu, halabeharrez.

Sortzaileok egoa gora eta egoa behera bizi gara, baina egorik gabe, ba al dago sortzaile izaterik? Egoa ez da zuria edo beltza. Nik idazketa kolektiboaren bidez plazaratzen diren lanak miresten ditut, baina bakarka ari diren sortzaile batzuen lana ere bai. Batzuen egoa neurriz kanpokoa izan daiteke, baina euren lanek aparteko zerbaite esaten badidate, egoarena bigarren planoan geratzen da niretzat. Askotan egilea ez zait pertsona bezala interesatzen, baina bere lana eskertzen dut, dela liburua, dela diskoa, dela... Inportantea bere lana delako. Egorik gabe, pertsona horrek ez luke lan hori sortuko. Taldekideok orobat egoarena erlatibizatzen ikasi dugu. Beste gauza bat da egokieriaz jardutea, harrokeriaz, irudiaren munduan itsutzea. Zentzu horretan, sare sozialetan zabaltzen ari den irudia oso arriskutsua da. Gure irudia etengabe elikatzea oso arriskutsua da, kontraesan itsusiak sorrarazten dizkigu eta.

Bakarkako lanak eta kolektiboak uztartu ohi dituzu. Non dago idazlearen "irakurlea" eta antzerkigilearen "publikoa"-ren diferentzia?

Liburu bat publikatzen duzunean oso zaila da irakurlearekin *feedback*-a aurkitzea. *Mr. Señora* eta *Zauri Bolodia*-ren aurretik ez nuen hori ezagutu. Liburuak egiten duen bidea ezagutzen ez duzun neurrian, bada, ez zaitu elikatzen. Zentzu horretan, kritiken beharra eta iritziaeren dependentzia sumatzen ditut idazle askorengan, eta *feedback*-ik jasotzen ez baduzu normala da. Antzerkian aldiz *feedback*-a berehalakoa da, eta basatia. Publiko aurrean ari zara eta funtzionatzen du edo ez. Berehala sumatzen duzu, areago, obra bera ez da berdina emanalditik emanaldira, publikoak ematen dizunak lana moldarazten laguntzen dizu. Lana garatu ahala aldatuz doa. Zuzeneko publikoak behartzen zaitu zure burua berehala ezagutzera, ikastera, egin duzun lanaren neurria nolakoa den jakitera. Publikoak sekulakoak ematen dizkizu asmatzen duzunean, baita sekulako zartakoak eman ere, asmatzen ez duzunean, baina jarraitu behar duzu lanean.

Zein neurritan lagundu dizu antzerkilari izateak idazletzan. Eta alderantziz?

Antzerkilari izateak asko erakutsi dit



idazteko orduan eta hori publikoari zor diot. Antzerkigilearen eta literatura idazlearen kodeak guztiz ezberdinak dira. Nire kasuan, antzerki egileak gehiago osatu nau literatur irakurleak baino. Literatur irakurleagoa naiz antzerki ikuslea baino, antzerki ikusle bezala ments sentitzen naiz, publikoarengana iristeko moduak landu behar ditut etengabe. Idazle ofiziotik begiraturik, antzerkiak lurrera jaisten lagundu dit, antzerkigintza umiltasun lezioa da.

Identitateaz ere idatzi duzu, sakon idatzi ere, beste kultura batetik heldu den familia bateko pertsona zaren aldetik.

Identitatearen inguruko gogoeta horiek genero gaiarekin uztartuta landu ditugu gehienbat. *Miss Karaoke* antzerkiaren oinarrian daude [Javier Barandiaran, Oier Guillan eta Metrokoadroaren zuzendaritzapean], testuak obra horren sormen prozesutik heldu dira liburura. Hau da, zer da gorputza? Nork erabakitzen du zer den zure gorputza? Zein da zure gorputzaren definizioa? Nola eraikitzen du nork bere burua eta nortasuna? Gaia konplexua da. Taldekideok identitatearen gaia buru-belarri landu dugu, hizkuntza eta gorputza uztartuz. Guretako bakoitzaren euskal nortasunak ñabardura anitz dauka: badago jatorria duena Euskal Herrian aitona-amonarengandik, gurasoengandik dituztenak, aita edo ama euskalduna

» “Sortzaileok egoa gora eta egoa behera bizi gara, baina egorik gabe, ba al dago sortzaile izaterik?”

» “Idazle ofiziotik begiraturik, antzerkiak lurrera jaisten lagundu dit, antzerkigintza umiltasun lezioa da”

» “Publikoak sekulakoak ematen dizkizu asmatzen duzunean, baita sekulako zartakoak eman ere, asmatzen ez duzunean”

» “Naizena onartzeak ondorio onak ekarri dizkit, baita sekulako askapena eman ere”

duena; aita ez, ama bai... Badaude aspalditik bertakoak izanda ere, euskara galdu zutenen seme-alabak, barne borroka handiak bizitakoak. Tipologia konplexuak dira euskaldunonak. Egoera politikoa dela eta, azken hamarkadatan gure barruak mugitu dira eta birkokatzen ari gara. Nork bere prozesua bizi du, barne borrokekin, hanka-sartzeekin, kontraesanekin, zure burua definitzen saiatzean ez zaudelako gustura... Nire kasuan, naizena onartzeak ondorio onak ekarri dizkit, baita sekulako askapena eman ere.

Sentimendu eta emozio bizi-bizirik agertu dituzu liburuan.

Izan ere, etorkinen ondorengoa naizela onarturik –nire arreba kenduta–, aurreko guztiek euskaraz sortzen dudana ez dutela ulertzeak –hitzen aldetik behintzat– modu berezian eragin dit. Idazten dudana nortasun horren ondorioa da, hori naiz ni eta erabili behar dut. Zer-bait sortu izan badut, naizenetik sortu baitut, eta ez izan nahi nukeenetik, edo beste batzuek ni izatea nahi luketenetik. Hori indargune bilakatu zait. Zuk bakarrik egin dezakezun moduan ari zare-lako, eta ez beste batek. Ahots propioa bilatzen duzun heinean, zaren horretarik zure identitatea eraikitzen duzulako. Euskaldun naizen heinean, euskalduntasunari nire ekarpentxoak egiten diodalako, inguru erdaldun batekoa naizen heinean, jende horrek ikusten duenean euskaraz sortzea, lan egitea eta bizitzea aukeratu dudala, kuriositatea sorten zaio. Oso era defentsiboan dagoen jendearengana beste modu batez iritsi gaitzke, erdaldunak izanagatik mugatuta sentitu daitezkeenengana. Nik erabaki politiko baten ondorioz ikasi dut zer den euskal kultura. Ez nuen jaso modu naturalean, eta euskarak daukan oihartzun emozionala ezberdina da niretzat. Onestidadea bilatzen baduzu, zure identitatea horrela osatzea oso interesgarria da.

Miss Karaoke-k jende askoren barrua mugitu omen zuen, batez ere, eremu erdalduneko euskaldunen artean.

Eremu erdalduneko lan egin dugunean jendea ukituta geratu da, ezberdina da eremu oso euskalduneko antzeztea edo eremu erdalduneko. Euskalduntasuna etorkinen ikuspegi batetik edo tradizio-tik planteatzen dugunean eremu euskal-

duneko jendea defentsiboki jarri izan da. Aldiz, eremu erdalduneko jendea asko hunkituta hurbildu zaigu, euskaldunberri asko, euskalduna izateko autokontzientzia emozionalari eta euskaldun izatearen hautuari erreparatu diogulako, hots, euskal mundua erreferente nagusitzat ez daukan jendearengana heldu garelako.

“Ezerosotasunean kokatzea jarrera kreatibo ezinbestekoa da niretzat, baita bizitzan ere”, diozu. Zer da ezerosotasunean bizitzea?

Lanarekin dudak konpromisoa arriskuan jartzea da ezerosotasunean bizitzea. Batzuetan ikusten duzu obrak ez duela funtzionatzen, eta beste bide bat hartzeko tentazioa hor duzu beti. Biziraupen beharraren sentsazioa izugarria da: “Merkatutxo bat sor nezake, eta kritika hobeagoak jaso nitzake”, pentsa dezakezu. Ni horri iskin egiten saiatzen naiz. Hasteko, ezerosotasunak tentsioan jartzen naudelako. Sortzeko unea, tentsioa eta ezerosotasuna behar ditut. Areago, batzuetan eman lezake ezerosotasuna korrante ofizial, nagusi eta instituzionalizazioaren aurkako jarrera dela, eta bada, baina ez soilik. Benetako ezerosotasuna, zure alde daukazun lagunak ere kontra jartzeraino prest egotea da, zure lagunak harritzea, alde dituzun jendeak deskontzertatzeraino, horraino iritsi behar da ezerosotasuna. Une batez erraza da antisistema izatea, baina beharrezkoa da kritiko izatea, alegia, harago joateko prest izan behar duzu, alde dituzun lagun horiek zure lana zalantzan jartzeraino. Hori da ezerosotasunean bizitzea.

Liburuan hainbat dramaturgo aipatzen duzu: Bertolt Brecht, Thomas Bernhard, Gabriel Aresti, Angélica Liddell, Sarah Kane... Poesiatik antzerkira bide eginda-kokatzaila zara.

Poesia eta antzerkia oso gertu daude niretzat, egungo dramaturgia berrietan ere gertuago daude. Antzerkilari asko ezagutzen dut poesiatik oso gertu. Jon Gerediaga antzerkigilea, poeta da alde aurretik. Interesatzen zaizkidan dramaturgo askok uko egin diote autoretzari eta oso hurbil daude poesiaren idazkeratik: Bernharden lanek poesia forma dute. Arestiren kasua, bere garaia dela eta, gertuago izan zitekeen Brechten-gandik egungo hainbat teatrogileren-

gandik baino. Arestiren antzerki obrak beharbada ez dira lengoaiak garaikidekoak, baina bazuen esaterako *Tobera*-rekin lotura. Arestiren obran bertako teatroaren lengoaiarekiko lotura agerikoa da. Teatroa beste era batean idatzi behar zela zioen, ez literatura erreferentzetat harturik. Testuetan ez da hainbeste sumatzen, baina *Lau teatro Arestiar* obraren hitzaurrea –Ramon Saizarbitoriak idatzita– oso interesgarria da zentzu horretan. Hitzaurrean somatzen da Aresti beste era batean idatzen hasi zela, teatro taldeko aktoreen neurritik alegia. Arestik aktoreentzat (Jarrai taldearentzat, besteak beste) egokituta eta pentsatuta idatzi zuen, teatro garaikidearen bidean. Arestiren poesia teatrotik hurbil izan gabe, oso erraz eraman dugu oholtzara.

“Elkarrizketa poetikoa Gabriel Arestiren *Egia bat esateagatik poemarekin*” atala deigarria da.

Poesia hori *Gabrielen lekua sentikaria* sortu genuen garaian idatzita dago, Arestiren obran murgildu ahala zerbait egin nuen, eta kontraesanak eta barne borroka sortu zitzaizkidan. Gidoi bat sortu behar genuen, eta dialogo hori sortu nuen nire lanaren bitartez. Egia esan, badut zerbait berezia Arestirekin.

Zer erakutsi dizu Iparraldeko antzerki moldeak?

Hasierako garaian ari ginenean, teatro asko ikusten genuen han-hemenka, Iparraldean antzerki asko egiten zen eta Hegoaldearekin harremana sendotzen hasi zen. [Piarres Lartzaletan] *Ibañeta* obra ikusi genuen [Ander Lipusek gaurkotua]. Mattin Irigoienek edota Le Petit Théâtre du Paimon lanak ere bai. Iparraldeko antzerkiak inpaktatu ninduen, Euskal Herrian berezko teatro bat zegoela ikasi nuen: “Tradizio horretatik elika zaitezke”, pentsatu nuen. Asko dugu oraindik ere bertatik ikasteko. Geroago, Antton Lukuren *Libertitzeaz* liburua irakurtzea aurkikuntza izan zen, ikasten ari naiz oraindik ere liburu horretatik. Lukuren *Fauxto* obra ikusi genuenean jabetu ginen sortu daitekeela teatro garaikide apurtzaile esperimentala eta aldi berean etiketei uko egin. Tradiziotik begiratuta gaurkotua, “amateurra” eta “profesionala” definitzen eta dikotomiaren artean antzerki potentzia egin daitekeela ikasi ere. ■

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Bidaiaari sentimentala



Aritz Galarraga
@aritzgalarraga

Jack Kerouac idazle estatubatuararen *On the road* nobela euskaratzen hasi zela, zera egin zuen Iñigo Roque itzultzaileak: “Jean Etxepareren *Beribilez*-era jo nuen, itsu-itsuan, hizkuntza tresnatzeko, jakinik harengan beti badela zer ikasia, eta ez nintzen tronpatu”. Orain kalean da *Errepidean*, eta aukera ezin hobe daukagu Etxepareren *Beribilez* ere irakurtzeko. Supermerkatu bagina, eskaintza: 2x1. Nobedade ez diren liburuak iruzkintzen ditugunez hemen, goazen estreinako edizioa 1931koa duena aletzera.

1987koak Mari Jose Kerejetaren hitzaurre gordin bat dakar, eta horrexegatik biziki interesantea –nahiz gauza batzuekin ez nagoen ados–: “Etxepare medikua ez da *Paul Morand* bat”, ondo, askoz gauza xumeagoa da, gure literatura literatura frantsesarekin konparatuta gauza xumeagoa den bezala. Erregresio moduko bat detektatzen dio, “hala nola katolikotasun kutsu ageria, bere gaztaroko artikuluren bateko jarreratik urrun xamar geratzen dena, edota bere abertzaletasun nabarmen eta tradizio zaharren gordetzaila”. Eta bukatzen du esaten “bere literatura apustuaren mailarik beheerenean” dagoela liburu hau.


Tira, ea, poliki. Akort, egia da bere garaian irakurri eta tarte honetan iruzkindu genuen *Buruxkak* haren aldean *Beribilez* honek galtzen duela puntxa, baina, positibo beti, kontu jakingarriak ere aurkituko dizkiogu. Egun bakarrean, autoz Kanbo-Kanbo ibili bitartean, 357 kilometro guztira, agertuko zaigu progresoaren aldeko,

Beribilez

JEAN ETXEPARE

Euskal Editoreen Elkarte
1987

*Jean Etxepare Bidegorri idazlea
(Mar Chiquita, Argentina, 1877–
Kanbo, Lapurdi, 1935) izengoitiz
Medikua deitua.*



basoen geroarekiko kezkatu, lan komunalaren oroitarazle, Madrilgo turismoaren ohargarri –eta hori Hondarribitik ez zela pasa–. Egia da besteren gainetik jasotzen direla paisaien deskribapenak, esajerazioraino: “Hemengoaren aldean, ikusi duten gutarik biek hitza dela diote Provence eskualdeko zeru-gaina”. Eta zerk ematen dio paisaiari, bidaiaari bizia? Giza-jendeak, zalantzarik gabe, gizon-emakumeek. Horretatik eskas du liburuak.

Kerejetak Laurence Sterne aipatzen du hitzaurrean, haren *A Sentimental Journey through France and Italy* liburua. Eta dio bidaiaari-erreduen txantxetako sailkapena zirriborratu zuenean, bere buruari honako izen hau ezarri ziola: “Bidaiaari sentimentala”. Balio lezake izen-dapenak Jean Etxeparearentzat, Morand izan gabe, izan gabe Sterne –honek bai, honek hitz egin zuen gizon-emakumez, batez ere emakumez–. Baina bidaiaari sentimentala. Jakinik, gainera, Etxeparegan beti badela zer ikasia. ■

» DISKOA

Norbere bidezidorretik



Iker Barandiaran
@ikerBarandiaran

Orain dela bi urte eskas ezagutu nuen Arrasateko Perlata taldea. Herrian antolatutako jaialdi batean eman zuen zuzenekoak txunditu ninduen; punka eta rock-and-rollera ulertu eta plazaratzeko moduak, eta batez ere transmititzeko freskotasunak eta erakutsitako jarrerak. Handik gutxira, beraien estraineko *Nondik hasi...* diskoa eskuratu nuen, baita gogoz entzun ere. Maialen, Ane, Jaione eta Ander bistaz ezagutzen nituen eta jakin banekien, gazteak izan arren, talde askotan ibiliak zirela (Lost Girls, No Ways, Interprete Desconocido, Neallta Fola...), beti ere punk eta rock-and-rollaren bueltan. Gogoz eta bereizgarri aritzen dira, eta hori halabeharrez entzuleari heltzen zaio.

Sasoi batean askoren ahotan izan zen taldea merezimendu osoz eta zenbait jaialdi eta kontzertu undergroundetan parte hartu zuten betiere hitz onak jasota. Gerora isil antzean ibili dira denbora batez eta ordutik ez ditut zuzenean ikusi. Eta, alajaina, astean jakin dut diskoa berria kalean dutela: honako hau. Berrizko Lorentzo Records estudio bateranoa aukeratu dute berriro, eta oraingoan soinu zikinagoa eta ilunagoa erdietsi nahi izan dutela esango nuke. Aurreko lanean bezalaxe, ingelesa eta euskara uztartuta punk-rock eta rock-and-rollaren topikoetatik hurbil izan arren harago joan dira, eta, beste jarre-ra askotan bezala estilistikoki ere ahalegindu dira gizarteak esparru guztietan marrazten dituen patroia eta itxurakerietatik aldentzen eta horixe salatzen; horregatik *Urrezko kaiola* izenburua.



Urrezko kaiola

PERLATA

Autoekoizpena, 2018

Beste behin laukoteak punka eta rocka ulertzeko eta transmititzeko duen ukitu propioak harrapatu nau; horrek eta ahotsek ingelesez zein euskaraz duten dikzio eta sinesgarritasunak. *Gerra* indartsua, zikina eta azkarra da, melodia ere badu; *Rock soul* Safety Pins eta Pussycats-en tankerako punk-rock-and-roll azkarra, biolinaren ukitu hillbillyak biderkatzen duena; *Empty*-k bi aurpegi ditu: rock ilun zein pisutsua eta erdi tenpoak; *Garra*-k lehen hardcore-punk talde melodikoen izaera dauka itsatsita eta eritmo dantzagarriak ere batzen ditu; *Urrezko kaiola* arnasarik gabeko punk-rocka da eta *Memories* pieza rockero eta makurrena. ■

Arrasateko

Perlata taldeko kideak.



Olerki paganoak



Andrea Zubozki

ARGAZKIA: ROCK MY WORLD

BJÖRK

2007ko kontzertu bat da hau, musikari islandiarrak Bilboko Guggenheim museoaren kanpoaldean emandakoa.

Garai horretan Björkek *Volta* diskoa kaleratu berri zuen –disko hori non eta azalean badirudien Björk Orangina botila baten barnerat sartu dela–. Eta disko horretako lehen abestiarekin, *Earth's intruders*, hasten dira Björk eta bere orkestra.

Orkestran bi pertsona makina elektronikoetan, batño pianoan, eta islandiar kobreak armada bat eszenaren eskuinaldean. Dozena bat musikari dira hor, tronpeta, tronboi, saxofoi... bata besteari lotuak zangoetan zintzilik dituzten kate batzuekin; esklabo moduan. Dantzan ari dira, elkarren kateak mugiaraziz. Mugitzen ez denak ez baititu kateak sentitzen.

Lehen kantua, ona, kontzertuan sartzeko pausoa eskaintzen digu. Segidan dator *Hunted* abestia. “Ehizatzen naute” kantatzen digu Björkek. Eta ber momentuan azalari lotzen den plastikozko sare erraldoi bat ateratzen du, eta publikoaren

gainerat botatzen. Sarearen bidez, Björken eriek publikoa “manipulatzeko” dute.

Kantuen artean “*grrrrracias*” batzuekin eskertzen gaitu. Heldu dira ondorengo *Volta* diskoko abesti anitz. Hala baita *Volta tour*. Eta kantu zaharrak? Kobreen *Joga* kantuen sarrera hasten dutelarik, nire kezkak airatzen dira. Kobreen presentziak beste kalitate bat ekartzen die kantuei. Gehienetan onerako, baina kolore hori ez zait beti gustatzen.

Formazio berezi horrekin aitzina doa kontzertua, orkestrako musikari bakoitzak bere lana betetzen duela. Haien aurrean, gurean bezala, Björk hor da. Oihuka, emeki, saltoka, musikariengana, publikoarengana; beti mugimenduan, baina momentu eta instante guzien gabe. Ez du fitsik gutxiesten. Denbora perfektzionatzen dabil.

Kontzertuak aitzina, azaleko lurrikara probokatzen dit *Pagan Poetry* batekin;

bukaera super ederra da, Björk beste unibertso batetik kantuz ari zaigu, kobreak koroak egiten dituztela. Eta segitzen dute, barne leherketa nuklear bat eragiten didan *hyperballad* batekin.

Aipatzekoa da argiekin zer nolako jokoa den; eszenak distira berezia du, baina publikoan ere argiak gaineratzen pasatzen zaizkigu, eta noiztenka laser batzuek zeharkatzen gaituzte.

“*Grrrrracias*” askoren ondorengo eszenatik ateratzen zaigu gure protagonista. Eta berriz etortzen. Baina aldi honetan “eskerrik asko” oihukatuz. Eta *Declare Independence* abestiarekin segituz. Bi orduko prestazioari bukaera ematen digu *All is full of love*-ekin.

Gaur egun ez dakit joan nintekeen ikusterat, hainbat arrazoiengatik (pertsonalak, ondorioz, politikoak). Eta ez dut uste merezi duenik... atzo ikusia dut! ■

Egilea: Ana Zambrano


Bertso-zopa

Osa ezazu Nahikari Gabilondok 2001ean Mutrikun botatako bertsoa. Laguntza behar izanez gero, bertsoari falta zaizkion hitzak zopan bilatu. Doinua: *Gogoan daukat ez du aspaldi*. Gaia: El Salvadorren lurrikarak ikaragarriko galerak eragin ditu. Aspaldi ez zela hurakana izan zuten. Zergatik hainbeste zoritxar?

Zenbat heriotz, zenbat zoritxar
pasa diren urtez____,
konponbidea erraza denik
____ nik ez det uste;
diru usaian hainbatek badu
nahikoa poz ta bertute,
ta haiek berriz sufrimendua
sufrimenduaren____
itxaropena bakarrik zuten
ta hura ere____ dute. (bis)


Ez dira bizi nahi bezain lasai
ez dira____ galako,
zoritxarren bat datorrenean
aurre egiteko plako;
berriro ere____ daude
zer ote zaien____
eurei zergatik gertatu zaien
garbi azaldu beharko:
gutxi____ dena galtzeko
____ daukalako. (bis)

Konpondu nahian borrokan dabiltz
berdin uda,____ negu;
bakean bizi behar genuke
egiten dute____.
Tira guk ere lagun dezagun,
hau konpondu behar____;
izan____ bihotz haundiko
jende onaren____
daukagunetik zerbait emanda
erraz____ dezakegu. (bis)




N	I	D	R	E	B	E	H	C	S	D	U	A	S	O
E	B	I	E	O	E	E	A	C	U	P	F	A	R	D
N	A	Z	M	G	N	U	L	E	T	Z	C	A	M	J
O	G	I	O	I	U	E	N	D	T	C	I	J	O	F
P	A	B	K	H	H	A	M	L	U	N	L	G	E	M
N	I	T	A	M	K	L	L	U	G	R	D	G	R	T
O	T	M	S	A	L	H	T	O	L	F	R	I	P	G
K	E	A	A	I	U	S	Z	Z	L	R	F	E	B	U
G	Z	K	P	J	A	K	P	E	E	I	L	N	Z	V
M	E	F	U	T	F	G	S	R	R	A	O	L	I	B
G	N	I	G	R	N	Z	E	I	D	R	G	N	B	C
R	R	L	I	G	T	D	E	C	R	S	E	T	G	O
R	L	B	F	T	U	Z	T	N	N	R	R	G	D	B
V	E	P	I	C	D	M	R	U	D	L	A	G	U	B
R	Z	E	C	P	M	G	U	V	J	S	B	H	R	M
J	U	M	O	I	C	O	H	O	U	N	I	H	D	U

Gurutzegrama



Ezker-eskuin:

1. Gogobetea. Taula. 2. Gipuzkoako udalerria.
3. Konparazioetako atzizkia. **Argazkiko**
hiriburua. 4. Damu. Zakur. 5. Dauka
(alderantziz). Ardiaren ile. 6. Ortziko esferan,
zenitaren aurkako puntua. Guztiz, sano. 7.
Otalorea. 8. Deiadarra. Moduan.



Goitik behera:

1. Aukera. 2. Ustekabeen egiten den
erasoa. 3. Erori aditzaren infinitiboa.
Justu, neurritz. 4. Zilarraren sinboloa.
Halaber. 5. Lokarria, lotura. 6.
Oroitu. Germanioaren sinboloa. 7.
Hasi aditzaren infinitiboa. Argi-izpi.
8. Eritasun larria eta kutsakorria,
etorkiz Indiakoa. 9. ... hoge, laurogei
iparraldean.

Sudoku

Erraza


8			1			4		
	6	9				8		1
	7		6			5	9	
	4		9	8			7	
7		2				3		4
	8			7	3		5	
	5	6			4		1	
2		8				9	4	
		7			1			5

Zaila

		7		3		1	4	
5				7		2		
	3							5
		8					6	
	1		4		9		8	
	9					5		
6							2	
			8		6			4
	2	3		4		9		

Ebazpenak

Zenbat heriotz, zenbat zoritxar/pasa diren urtez **urte**,
konponbidea erraza denik **oraingoz** nik ez det uste; diru
usaian hainbatek badu/nahikoa poz ta bertute, /ta haiek berriz
sufrimendua/sufrimenduaren **truke** /itxaropena bakarrik zuten/
ta hura ere **gald**u dute. (bis) // Ez dira bizi nahi bezain lasai/ez dira
bizi galako, /zoritxarren bat datorrenean/ aurre egiteko plako;
berriro ere **bel**durrez daude/zer ote zaien **pas**ak; /eurei zergatik
gertatu zaien garbi azaldu beharko/gutxi **duen**ak dena galtzeko/
arritsuka daukalako. (bis) // Konpondu nahian borrokan dabiltz/
berdin uda, **berdin** negu; /bakean bizi behar genuke/ egiten dute
errazgu; /ira guk ere lagun dezagun/ hau konpondu behar **degu**;
izan **gait**zen bizihaundiko/ jende onaren **er**ed; /daukagunetik
zerbait emanda/ erraz **konpon** dezakegu. (bis)



6	9	6	6	1	4	7	2	3	8	7
8	7	5	6	8	6	6	6	6	6	7
8	4	1	5	3	7	2	2	2	2	9
3	1	5	4	6	9	6	2	2	8	7
6	9	3	5	1	4	6	6	6	6	7
1	3	2	8	8	8	4	4	4	4	1
5	5	7	6	9	6	7	1	2	8	3
3	8	7	6	3	5	1	4	2	2	2
9	4	3	7	8	8	8	8	8	8	8
2	1	8	7	6	9	1	6	2	2	5
4	3	7	7	6	1	6	2	2	2	5
2	1	8	7	6	9	1	6	2	2	5
9	5	6	3	2	4	7	1	8	8	8
6	8	1	4	7	3	2	5	9	9	9
7	9	2	5	1	6	3	8	4	4	4
3	4	2	5	8	1	6	3	8	4	4
1	7	4	6	6	3	8	5	9	2	2
5	6	9	2	4	7	8	3	1	1	1
8	2	3	1	5	9	4	6	7	7	7

Erraza

1. Abagunua. 2. Segada. 3. Eror.
4. Ag. Baita. 5. Amarra. 6.
8. Adia. Eran.
Arle. 6. Nadin. 7. Otzagaia.
Ago. Mosku. 4. Garbat. Or. 5. Ud.
1. Asca. Ohio. 2. Bergara. 3.
Esker-eskuin:

Othman Alfredo. Musulman bilakatua



Soziologian lizentziatua, gazte mugimenduan eta euskalgintzan ibilia, duela urte batzuk islamera hurbiltzen hasi eta egun musulman praktikantea dugu Othman Alfredo Gomez-Cambroneru Kortazar (Bilbo, 1969), Othman izen arabiarra agiritan ere gehituta. Islamera iristeko bere ibilbide pertsonalaz eta nagusiki etorkinek osatua den komunitate islamikoaren kezke jarraitzen dugu berarekin.

“Musulman izateak gaur eta hemen migratzailearen zama gainean eramatea dakar”



Jabi Zabala

@sarean

ARGAZKIAK: ARITZ LOIOLA

Jatorri moriskoa

“Moriskologiak Mantxako birraitonaren jatorri etnikoa ezagutzen lagundu zidan. Nire Gómez-Cambroneru abizenaren iturri moriskoa duela urte batzuk ezagutu ahal izan bainuen. Moriskoak kristau bataiatzera behartutako musulmanak ziren, bataioan izen islamikoa galdu eta izen-abizen kristauak erromantzez hartu behar izaten zituzten. Naturako elementuak izaten ziren, *Cerezo* edo *Manzano* adibidez, edo moriskoak nagusi ziren ofizioak, *Cambroneru* (saskigilea) kasu. Aitonak ezkutatatu egiten zuen abizen hori, maketo itxurakoa zelakoan, baina ni gaur egun harro nago nire jatorri moriskoaz”.

Alfredo gaztearen ibilbidea gazte mugimendutik pasatzen da...

Lehenengo, aiton-amonek galdutako euskara berreskuratu behar izan nuen, umetan Madrilen bizi izan bainintzen urte batzuetan. Buelatu eta euskaltzaletasuna gogor piztu zitzaidan. Gazte, okupazio eta ikasle mugimenduetan ibiltzeak markatu ninduen, heziketa sozio-politikorako ingurune aproposa izan zen hura, bizia eta trinkoa. Garai hartan *Martxa eta borroka* leloari lotuta bizi izandakoa egun Europan topatzea gaitza da, herri txiki eta berezi batean bizi izan gara.

Nolakoa izan zen musulman bihurtzeko zure bidea?

Kristautasun katolikoa praktikatzeko duen sei neba-arrebako familia batean seme nagusia naiz eta heziketa kristau katolikoa jaso nuen. Nerabezaroan, gogoan dut islamaren profeta den Aisarekin [Jesusekin] amets egin nuela eta islamaren berri zuzena eman zidan *The Message* filmak. Orduan eliza katolikoa-
ren jokabide politikoarekiko desadostasunak eta doktrinari buruzko zalantzak

handitu zitzaizkidan. Praktika erlijio-soa eten nuen, kristautasunaren adarren ezagutza sakondu bitartean. Gero, soziologia ikasketak egitean erlijioaren eta sinesmenaren ondorioei buruzko ikuspuntu batzuk ezagutu nituen, tartean Max Weber-ek kapitalismoaren sorreran erlijioak izandako eraginari buruzko ikerketak eta historiako lehenengo soziologotzat har daitekeen Ibn Khaldun Al Andaluseko pentsalariarenak.

Noiz bihurtu zinen erabat musulman?

Nire burua musulmantzat jotzen hasi eta 34 urterekin *shahada* edo fedearen testigantza egin nuen. Geroztik musulman bezala bizitzen ikasi eta horretan ahalegindu naiz. Birritan ezkondua naiz; bigarren emaztearekin hiru seme-alaba izan ditut.

Etorkin askorekin duzu harremana. Soziologo musulman moduan ikuspegi berezia lortu duzu etorkin musulmanen pentsamoldeak ulertzeko?

Soziologo legez, komunitatearen gaiak “barrutik eta neure larrutan” bizitzeko aukera daukat, eta esan beharra dago



hori oso aberasgarria dela errealitate jakin bat aztertzea hurbiltzen den gizarte arloko ikerlari batentzat. Gure komunitatearen kide gehienak etorkinak eta etorkinen ondorengoak dira. Musulman izateak gaur eta hemen migratzailearen zama gainean eramatea dakar. Eta horrek etorkinak ez garen musulmanengan ere eragina dauka, izan ere, benetako komunitate sozioespirituala izateko gure anai-arreben arazoak gizarteratu behar ditugu; osterantzean, ez gara benetako musulmanak. Herri-erakundeek, sarri, gure eskaera eta beharrianak “etorkinen arazo-multzoan” sartzen dituzte, batzuetan modu kontzientean ez bada ere, nahiz eta fenomeno hori gero eta gutxiagotan ematen den.

Zerk atsekabetzen ditu hemengoon ohi-tura eta jarretatik?

Gaur egungo gizarte postmodernoaren espiritualtasunik ezak eta indibidualismoak dakarren gizarte harremanen haustura dira gure gizartearen ezaugarri zailenak gure komunitatearen kide askorentzat, izan ere, haietako asko oraindik gizarte harreman sendo eta

“Gizarte postmodernoaren espiritualtasunik ezak eta indibidualismoak dakarren gizarte harremanen haustura dira gure gizartearen ezaugarri zailenak gure komunitatearen kide askorentzat”.

aberatsak dituzten herrialdeetatik due-la gutxi heldutakoak dira eta haiekin iritziak alderatzeko aukera izaten dudan, sarritan agertzen da kontu hau. Nik, oster, gure herrian duela belau-naldi bat kontuak nahiko desberdinak zirela esaten saiatzen naiz, batez ere, familiaren antolaketari eta auzokoen arteko harremanei dagokienez, baina sinesgaitz egiten zaie.

Meskiten aurkako arbuio adierazpen batzuk eta, are, eraso batzuk izan dira. Nola interpretatzen dituzu?

Europako mendebaldean orokorra da islamarekiko eta musulmanekiko mesfidantza, arrazoi historikoak direla medio, Al Andalusen lurralde osoan eta Europako hego-mendebaldean islamaren praktikak lagatako ondarearen eta haren debekuak eragindako zaurien ondorioz. Iberiako herri edo nazio guztietan,

bakoitzean bere neurrian, hori ematen da eta kolonizazioaren inguruko trauma-gek gehi etorkin musulmanen ekarpen soziokulturalaren kudeaketa bidegabeak handitu dute mesfidantzazko harremana.

Zer nolako ekimenak behar dira loturak ezartzeko eta daudenak indartzeko?

Bizitza pertsonala eta publikoa antolatzeke estrategia berriak behar dira. Oso garrantzitsua da gure auzoetan baten gaituena lehenestea eta bereizten gaituena aukera gisa eta ez arazo-iturri bezala jartzea. Institutuzioak gure komunitatearen beharrian, arazo eta eskaeren kudeaketa “hemengo” arazoa direla ohartzen hasiak dira. Esate baterako, Eusko Jaurlaritzak Ados Aholku Batzordea sortu berri du EAEko islamiar komunitatearekin erakundeek dituzten harremanak modu bateratuan antolatzeko. Giza Eskubideen Zuzendaritzako arduradunek, gizarte arloko ikerlaria eta musulmana naizenez, Ados Batzorde horren kide izendatu naute. Bertan, aitortu behar dut ez naizela inoren ordezkari, aholkulari boluntarioa baizik. ■




BBK Live jaialdiaren azkeneko edizioan %62 hazi da postureo-maila, antolatzaileen arabera

2018ko edizioaren balorazio positiboa egin dute BBK Live festivalaren antolatzaileek: egun guztietan sarrerak agortu dira eta jaialdira joan direnen postureo-maila iazkoa baino %62 handiagoa izan da. “Pixka bat eskuetatik joaten ari zaigu”, onartu dute prentsari egindako adierazpenetan: “Urtero ospitaleratu behar izaten da norbait Instagramen selfie gehiegi igotzeagatik ego-gaindositia jasan duelako, baina aurtengoarekin harrituta gaude”. Datorren urtean telefono mugikorrak kargatzeko puntuak gutxitzea aztertzen ari dira eta festibalerara joaten direnentzat ikastaroak antolatuko dituzte: “Helburua da jendeak gutxienez bost minutuz kontzertuak entzun ditzala, beren burua etengabe erretratatzeko aritu gabe. Kalitatezko postureoaren aldeko apustua egiten dugu”.



SAREAN ARRANTZATUA

Irexki ala hil!



Euzkadi: segurtasun indarren paradisia



“Belarrondoko”, euskara ez entzuteko eskubidea aldarrikatzeko txapa

“Ahobizi” eta “Belarriprest” bezala identifikatzen ez den gehiengo isilaren borondatea errespetatu eta bizikidetzaren alde urratsa emateko, “belarrondoko” txapa sortu du Euskaraldiak. “Urte luzez munduko hiritarren artean pozikibitua sustatzea gakoa izan da txapa gizarteratzeko”, esan du Eusko Jaurlaritzako igeltsero Nikeren Zuriiriak. Euskal talibanek presionatuta

sentitzen direnek modua izango dute lasai geratzeko: inor euskaraz zuzentzen bazaie zapla! belarrondokoa ordainetan. Bilboko Erreka tabernan egindako aurkezpen-ekitaldian, Donostiako Triatloiko epaileen agurraren ostean, Retegui aita-semeen bertsoez, Fernando Arambururen ipuinaz eta Mikel Erentxunen irribarreaz gozatu zuten bertaratutakoek.





**INDARTU
DEZAGUN
INDARTZEN
GAITUENA**

Egin ARGIAkoa!

Eman eta jaso
nahi duzun neurrian

argia.eus/eginargiakoa

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com